KIROLA: ALOÑA MENDI-MONDRA FUTBOL DERBIA AZKOAGAINEN /10

# Goienkaria



BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




EGUBAKOITZA • 2005eko martxoaren 4a • V. urtea • 190. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**OÑATI**
Familiak behar dituzte Saharako haurrak etxean jasotzeko /6

**LOURDES HERRASTI / ARANTZADI**
*"Elgetan aurkitutako gorpuzkiak Arrasateko herritar batenak dira"* /7

**DEBAGOIENA**
Oraingo martitzena izan da neguko egunik hotzena /5



GOIENKARIA

## Tuning-a, abiadura betean Debagoienean

Ez dago araurik ez eta mugarik ere. Norberaren poltsikoak, gogoak eta zaletasunak agintzen dute tuning-ean, autoa kanpotik zein barrutik aldatzean datzan jardueran. Debagoienean ez dago autoa oso-osorik itxuraldatuta duen zalerik, baina bai gero eta pieza gehiago aldatzen diotenik autoari. Horiek harro-harro ibiltzen dira autoan: jabe moduan gustura, eta begirada guztien erakargarri direla jakinda. 3.000 eurotik gora gastatu dute orain arte elkarrizketatu ditugun debagoiendarrek. Argazkian, Raul Rodriguez aretxabaletarra, hark margotutako auto baten ondoan. /13-14

Goienka2a

ASTEKO GAIA: GENETIKA ETA EUSKARA, AZTERGAI

# Boluntarioak behar dira ikerketarako

Zientziak debagoiendarren beharra du. Deba ibar osoko 55-60 urtetik gorako 50 gizonezko behar dituzte Euskal Herriko ikertzaile batzuek. Frantziako Gobernuak bultzatutako azterketa bat egiten ari dira Euskal Herri osoan eta inguruan, eta orain Debagoienean eta Debabarrenean hasiko dute lana.

Azterketak honako helburua du: ikustea ea euskalkien eta genetikaren artean loturarik badagoen, eta ea euskal hiztunok arbaso komuna dugun. Boluntarioek egin beharrekoa oso erraza da: odol lagin bat eman, ADNa lortzeko, eta etxeko euskararen gaineko elkarrizketa labur bat egin. /2-3

## Aukera Guztiak ekimenak sinadurak batuko ditu hauteskundeetarako

Aukera Guztiak herri ekimenaren aldeko sinadura eman nahi duten debagoiendarrek Arrasateko udaletxera edo notariotzara joan behar dute. Sinadurekin, eskubide zibil eta politikoen aldeko hautesle elkartea eratu nahi dute. Era horretan, aukera politiko guztiek apirileko hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea izan behar dutela diote. Ekimenak ez du proiektu politikorik aurkeztuko. /5


LORAMENDI INTERSPORT Arrasate
12€ kamisetak prakak...
txamarrak forro polarrak %50 eskiko prakak



FordFocus berria. Kalitatea bete-betean.



MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak
Ford


**BERGARA**

### Haurtzaindegi publikoa aldarrikatu dute hainbat gurasok

Hainbat gurasok haurtzaindegi publikoa aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten astelehenean, San Martin plazan. 60 lagun inguru elkartu ziren eta erakusten zuten pankartan zera irakur zitekeen: *Alkate jauna: non eta noizko 0-3 haur eskola publikoa?* Elkarretaratzean ostean, osoko bilkuran parte hartu zuten. /6

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

# Debagoiendar bila dabil zientzia

■ Genetika eta hizkuntza batzen dituen ikerketa baterako boluntarioak behar dira

■ Euskal hiztunen ADN harremanen gaineko azterketa egingo dute hemengo hiru adituk




LEIRE KORTABARRIA

Zientziaren jomuga bihurtu da Deba ibarra; zergatik, eta hemengo hizkerarengatik. Izan ere, genetika eta hizkuntza ardatz dituen ikerketa egingo dute Debagoien eta Debabarrenean. Kontua da horretarako herritarron laguntza behar dutela: hain zuzen ere, 50 boluntario behar dituzte.

Ikerketa hori Euskal Herri osoan egiten ari dira, eta oraintxe hasiko dute lana Deba ibar osoan. Ikerketaren helburua da "ikustea ea hizkuntzak euskaldun guztiok lotu gaituen bezala, genetikak ere lotu gaituen, ea arbaso komun batetik gatozen", dio ikerketako arduradunetako batek, Estibaliz Montoia filologo bilbotarrak.

Euskalkiak direlako ikerketaren jomuga, guneka egiten ari dira lana, eta orain Debarroaren txanda da. Herri guztiak daude barne, Aramaio izan ezik. Herri horietako 50 lagun behar dituzte, baina baldintza jakin batzuk bete behar dituzte. Garrantzitsuenak honakoak dira: 55-60 urte bitartekoak izatea, eta gizonezkoak, gizonek bakarrik duten *Y* kromosoma behar dutelako ikerketarako; bestetik, bai eurak, baita guraso eta aitona-amonek ere Deba ibarrekoak izan behar dute. Berdin dio herri desberdinetakoak izatea, baldin eta Deba ibarrekoak badira. Zortzi abizen euskaldun izatea ere eskatzen dute. Hala ere, arduradunek diotenez, hori "ez da hain garrantzitsua. Ezinbestekoa dena da pertsona eta aita-ama eta aitona-amonak Deba ibarrekoak izatea. Norbaitek abizenen bat ez baldin badaki ere, aurkez daiteke".

### ERAKUNDE ASKOREN BABESA

Ikerketak HIPVAL du izena (frantsesez, Populazioaren eta Hizkuntza Aldaketen Historiaren siglak) eta Frantziako Gobernuak bultzatzen du, Frantziako Ikerketa Zentro Nazionalaren bitartez; hortxe dihardute lantaldea osatzen duten ikerlariek. Lau lagunek osatzen dute lantalde nagusia: hiru filologok —Beñat Oiartzabal, proiektu osoko zuzendaria; Estibaliz Montoia eta Jasone Salaberria— eta mediku batek —Baionako Ospitaleko Frederic Bauduer hematologoa. Egitasmoak hainbat erakunderen oniritzia du: Euskal Herriko Unibertsitatea, Parisko Pasteur Institutua, Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatea, Baionako ospitalea, Osakidetza eta Bordeleko Etika Komitea. Boluntarioek osasun eta konfidentzialtasun berme guztiak izango dituzte. Horrez gain, eskubidea dute proiektutik edozein momentutan irteteko.

Oso erraza da boluntarioek egin beharrekoa: odola aterako die lantaldeko medikuak, osasun galdeketa labur bati erantzun beharko diote, eta Montoiak eta Salaberriak elkarrizketa bat grabatuko dute eurekin, euren etxeko euskararen gainean.



HEMEN BAKARRIK IKUSTEN DA ONENA.

Hemen bakarrik abona zaitezke Digital+era baldintza hauekin:

3 HILABETE ERDI PREZIOAN | IZENEMATE KUOTA 45 € | Antena eta instalazioa DOAN

Zeren zain zaude. Egin zaitez DIGITAL+en abonatu Milar Elkoron. Olarte kalea 1 (Arrasate)

DIGITAL+



GOIENKARIA
Genetikak inoiz euskaldunok batu gaituen argitu nahi dute ikertzaileek.

*Frantziako Ikerketa Zentroak bultzatzen du lana, eta hiru filologok eta mediku batek dihardute*

*Ibarreko 50 laguni odola atera eta etxeko euskararen gaineko elkarrizketa egingo diete*

Proiektuaren eremua ez da Euskal Herrira mugatzen: Akitanian hasita, Euskal Herri osoan eta Aragoi, Errioxa, Burgos eta Kantabrian egingo dute populazio azterketa, biztanleen osaketa genetikoetan antzekotasun edo desberdintasunak bilatzeko. Guztira, 1.200 boluntariok jardungo dute, 50 gune bakoitzeko; leku guztietan, baldintza garrantzitsuena da eurak eta gertuko arbasoak leku horretakoak izatea. Ez da beharrezkoa arbaso horien sorteguna jakitea; garrantzitsuena da guztiak ibarrekoak bertakoak izatea, edozein herrikoak.

**EUSKARA ETA EUSKALKIAK**

Zehatz-mehatz esateko, Luca Cavalli-Sforza genetikalariaren teoriak jarraitzen ditu egitasmoak. Cavalli-Sforzak giza populazioen ikerketa egin du. Antropologia eta hizkuntzalaritzaren laguntzaz, giza populazioen historia berrikusten du egile horrek. Horiek gure kasuan zelan aplikatzen diren azaltzen du Estibaliz Montoiak: "Frogatu nahi da, adibidez, gipuzkeraz eta zubereraz egiten duten bi lagunen artean, genetika aldetik desberdintasunik baden". Eta hori, bi gauza argitzeko: batetik, euskaldunon arbaso komuna zein den, baldin badago; eta, bestetik, arbaso hori noiz bizi izan zen, hau da, euskalkiak noiz hasi ziren banatzen.

Horrek esan nahi du albo-ondorio bat izango dela euskara bera, euskalkiak barne, hobeto ezagutzea. Hitza emango diegu HIPVALeko arduradunei: "Euskararen historia hobeto uler dezakegu, eta, zientzia zehatza ez den arren, datu asko atera daitezke. Adibidez, badakigu euskara inoiz Euskal Herritik kanpo ere egin zela; eta jakin dezakegu euskalkiak noiz hasi ziren banatzen".

Euskal hiztunoi ekarpen handia egin diezaguke proiektuak, eta euskalkiak gehiago baloratzen lagun dezake. Hala uste du Estibaliz Montoiak: "Euskal dialektoak ikasiko dira, euren arteko loturak… Oso garrantzitsua da euskalkiak hobeto ezagutzeko eta jendeari gogorarazteko ez direla galdu behar: historian barrena hiztunek eutsi egin diete euskalkiei, eta etorkizunean ere eutsi egin behar diegu".

Betidanik adituen ahotan egon den debatea, euskaldunok eta euskara nondik datozen, argitzeko aukera ere izan daiteke. Teoria ugari dago. Lantaldeak ez du aurreiritzirik: "Teoria asko mahairatu dira: Saharako herriekin, Georgiakoekin… lotuta gaudela. Baina ia gauza ziurra da euskara hemengoa dela, hemen jaio zela, hizkuntza indoeuroparretatik bananduta dagoela. Jakin dezakegu inguruko tribu edo taldeekin zein harreman izan zuten, baina euskara bertakoa dela ia guztiek onartua dago".

**EUROPAN GARRANTZITSUA**

Eremu geografiko eta boluntario kopurua kontuan hartuta, lan eskerga dute adituek. Aurreikuspenak dira hiru urtean bukatuta egongo dela egitasmoa. Debagoien eta Debabarrenari dagokionez, lana hasteko dago oraindik, baina uste dute bi hilabetean eginda izango dutela. Itxaron egin beharko da, hortaz, ikerketaren konklusioak zeintzuk diren jakiteko.

Konklusio horiek garrantzia izango dute guretik kanpo ere. Europa osoan ohikoak dira antzeko azterketak eta Europako hizkuntzak hobeto ulertzeko balio izan dute. HIPVAL proiektuak bokazio unibertsala du eta historia ezagutze horretan zeresana izango du: hain zuzen, Estibaliz Montoiak dioen bezala, "Europako hizkuntzarik zaharrena zein den jakinda, Europako historia linguistikoa hobeto ulertzen lagun dezake proiektuak".

# Boluntario izateko

**ADINA ETA SEXUA**

**55-60 urtetik gorako gizonezkoak behar dituzte, denboran ahalik eta urrutien jo nahi dutelako; eta gizonek duten *Y* kromosoma bakarrik aztertzen delako.**

**SORLEKUA**

**Boluntarioek eta guraso eta aitona-amonek ere Deba ibarrekoak izan behar dute.**

**ABIZENAK**

**Zortzi abizen euskaldun izan behar dituzte. Bateren bat ez badakite, betiere artxibategietan bila daiteke.**

**AHAIDETASUNA**

**Boluntarioek ezin dute euren artean anaiak edo lehengusuak izan, odol mota ez errepikatzeko.**

**NOR BERE BURUAREN JABE**

**Burua ondo izatea ere beharrezkoa da.**










**ESTIBALIZ MONTOIA** / IKERKETAKO ARDURADUN BAT

## *"Boluntarioen anonimotasuna ziurtatzen dugu; Osakidetzaren bermea ere badugu"*

**Bilbokoa da Estibaliz Montoia, eta Euskal Filologian doktorea. Koldo Zuazorekin egin zuen tesia. HIPVAL proiektuan, Deba ibarreko ikerketa egingo du.**



**Zein da, zehazki, zure lana?**

Jasone Salaberria filologoa eta biok hizkuntza azterketa egiten ari gara Beñat Oiartzabalen zuzendaritzapean. Euskal Herria gune linguistikotan banatu dugu. Gure lana da boluntarioak topatu, eurei elkarrizketa egin…

**Deba ibarra zelan klasifikatu duzue?**

Egin dugun banaketan, Debagoiena eta Debabarrena trantsizio gune moduan hartu ditugu, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean. Herri guztiak hartu ditugu, Aramaio izan ezik. Bizkaiko lana ia bukatu dugu, eta oraintxe hasiko gara Deba ibarrean.

**Zer egin behar du boluntario izan nahi duen batek?**

Neuri deitu, 94 421 63 64 telefonora. Baionan gaude, baina boluntarioengana geu joango gara. Medikuak odola aterako die eta hizkuntza grabaketa egingo diegu boluntarioei.

**Zeintzuk dira boluntarioen eskubideak?**

Agiri bat sinatu behar dute baimena emanez eta odola ikerketa honetarako bakarrik erabiliko dela esanez. Osakidetzaren baimena dugu, eta anonimotasuna ziurtatzen dugu, odola norena den hiru pertsonak bakarrik jakingo dugu eta.

**Leku askotan egin dira antzeko ikerketak, ezta?**

Bai, mundu osoan, eta Europako hizkuntza zaharrena zein den jakinda, oso garrantzitsua da, nire ustez, euskara hobeto ikertzea, bai geuretako, baita Europako hizkuntza historiarako.


GOIENKARIA
Aurkeztu berri den masterrean parte hartzen dutenek 1 Formulan erabiltzen diren autoekin praktikak egingo dituzte.

# Europan aitzindaria den masterra abiatu du MUk, Epsilonekin batera

*Automobilismoaren inguruko masterra hasi dute 15 ikaslek Azkoitian*

MARIA AGIRRE

**Mondragon Unibertsitateak eta Epsilon Euskadik masterra abiatu dute automobilismoaren inguruan. Europan ez dago horrelakorik, hortaz, aitzindaria da. Ikasleek 1 Formulan erabiltzen diren autoekin praktikak egingo dituzte.**

Astean inauguratu dute Europan aitzindaria den masterra. Guztira 24 ingeniarik izango dute masterra egiteko aukera, eta automobilgintza alorrean adituak izango dira ikastaroa bukatutakoan. Azkoitian, Epsilon Euskadik duen egoitzan, emango dute masterra, eta alde teorikoa zein praktikoa izango ditu. Mondragon Unibertsitateko irakasleez gain, automobilismoko adituek eta atzerriko irakasleek emango dituzte eskolak.

**ESKARI HANDIA IZAN DA**

Gaiak duen oihartzunagatik seguruen, 90 lagunek egin du masterra egiteko eskaera. Baina, azkenean, 15 lagun baino ez dituzte onartu. Hala ere, urtero 24 ingeniarirendako tokia izango da masterrean. Izan ere, aukeraketa egiterakoan zorrotzak izan dira, ingelesa oso ondo jakin behar baitute masterreko ikasleek. METCA izenez bataiatu duten masterrean, diziplina askotariko gaiak landuko dira. Arduradunek esan dutenez, masterra "gogorra" izango da, eskola orduez gain tailerrean ordu asko sartu beharko baita.

Hamaika hilabeteko masterra izanik, teoria batetik baina alde praktikoa ere izango da, eta azken horren zain daude ikasleak. Gainera, Azkoitiko egoitzan ez ezik, maila handiko lasterketetan ere, ikasitakoa praktikan jarriko dute. Epsilon Euskadi taldea World Series By Renault izeneko lasterketan izango da aurten. Lasterketa hori 1 Formulako lasterketen parekotzat jotzen dute adituek. Gainera, Europako zirkuituko lasterketetan ere esku hartuko dute.

*Maila handiko auto lasterketetan, ikasitakoa praktikan jarriko dute ikasleek*

**INAUGURAZIO EKITALDIA**

Eskolak otsailaren lehenean hasi ziren, baina joan den eguaztenean, hilaren 2an, inauguratu zuten ofizialki masterra. Azkoitian, Epsilon Euskadik duen egoitzan egin zen ekitaldia. Angeles Iztueta, Hezkuntza sailburua, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, Iñaxio Oliveri MUko errektorea eta Epsilon Euskadiko ordezkari gorenak izan ziren inaugurazio ekitaldian: Joan Villadelprat, Michel Lecomte eta Carlos Molla. Villadelpratek esan zuenez, atzerriko jendea erakarri nahi dute masterrean parte hartzera. Iñaxio Oliverik, berriz, masterraren berezitasuna eta automobilgintzak euskal industrian duen nagusitasuna azpimarratu zituen.

# Zubillagako hiltegiari buruzko hiru batzar datorren astean

*Siadeco enpresaren txostenaren emaitzak aztertzeko*

ENEKO AZKARATE

Zubillagako abere hiltegiaren gaineko bideragarritasun plana egin du Siadeco enpresak, Debagoieneko Hiltegia Bizirik plataformak eskatuta. Azterketa horren ondorioak aintzat hartuta, proposamena aurkeztuko diote plataforma horretakoek Mankomunitateari. Apirilean aurkeztuko dute proposamena. Bien bitartean, plataformakoak dabiltza herriz herri aurkezten Siadeco enpresak egindako txostena. Datorren astean hiru herritan egingo dute aurkezpena: astelehenean, hilak 7, Oñatin, Baserritarren Elkartean, 20:30ean; martitzenean, Eskoriatzan, Ibarraundi museoan, ordu berean; eta, eguaztenean, Bergaran, Uberako elkartean, han ere 20:30ean.

Mankomunitateak Zubillagako hiltegia itxi nahi du, defizitarioa delako. Zubillagako hiltegia bezalakoak itxiz eta Eusko Jaurlaritzak planteatzen duen eredua aintzat hartuz, hiltegi handiago eta gutxiago egongo lirateke Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ostera, Siadecok egindako txostenak dio Zubillagako hiltegiak aurrera egin dezakeela kudeaketa onarekin. Lau aukera ikusten ditu: kudeaketa publikoa, kudeaketa mistoa, hiltegiaren pribatizazioa eta hiltegia ixtea. Lau aukera hauen abantailak eta desabantailak aztertu nahi dituzte Hiltegia Bizirik plataformakoek ondorengo egunotan, egokiena zein den erabakitzeko eta azken proposamena egiteko Mankomunitateari.

*Siadecoren txostenak dio hiltegiak aurrera egin dezakeela kudeaketa onarekin*









# Aukera Guztiak herri ekimenaren aldeko sinadura bilketa Arrasaten

*Datorren egubakoitzean, martxoaren 11n, bukatuko da sinadura bilketa*

MARIA AGIRRE

**Joan den martitzenean hasi zen Aukera Guztiak ekimena sinadurak batzen Arrasaten. Lehenengo bi egunetan, 30 lagunek eman zuten sinadura udaletxean, eskubide zibil eta politikoen aldeko hautesle elkartea eratzearen alde.**



GOIENKARIA
**Aukera Guztiak ekimenak eskatzen du denek aurkeztu ahal izatea hauteskundeetara.**

Aukera Guztiak herri ekimenaren aldeko sinadura eman nahi dutenek Arrasateko udaletxera edo notariotzara joan behar dute. Joan den martitzenean, sinadura emateko epea ireki, eta lehenengo bi egunetan 30 lagunek eman zuten sinadura udaletxean. Ibarreko jendea joan zen helburu horrekin, baina baita Zumarragako lagunen bat ere. Notariotzan, berriz, askoz ere gutxiago, lau sinadura baino ez zuten jaso. Aukera Guztiak ekimenaren aldeko sinadura bilketa martxoaren 11n bukatuko da.

Hautesle elkartea sortzeko hasi da sinadurak batzen Aukera Guztiak. Ekimenaren bultzatzaileek esan dute milaka sinadura behar dutela. Sinadurekin, eskubide zibil eta politikoen aldeko hautesle elkartea eratu nahi dute. Era horretan, aukera politiko guztiek apirileko hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea izan behar dutela diote. Beraz, ekimenak ez du proiektu politiko zehatzik aurkeztuko hauteskundeei begira.

**GIPUZKOAKO INDEPENDENTEAK**

Arrasate, Oñati eta Bergarako udaletxeetan, gainera, Gipuzkoako Independenteen taldea ere sinadurak batzen hasi da. Hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko 6.000 gipuzkoarren sinadura behar dute, eta martxoaren 11n bukatuko dute bilketa. Herritarren parte hartzea bultzatu, eta gai sozialei lehentasuna eman nahi diete talde horretako kideek. Oraingoz, baina, ez dute arrakasta handirik izan. Bergarako eta Arrasateko udaletxeetan, oraingoz ez du inork sinadura eman ekimen horren alde.

# 18/98 Eta Gehiago ekimenekoak pozik, kale bilkuren erantzunagatik

ENEKO AZKARATE

**Debagoieneko 18/98 Eta Gehiago herri ekimenak eskerrak eman nahi dizkie azken egunotan ibarrean zein Bilbon antolatu diren kale bilkuretan parte hartu duten debagoiendarrei.**

Protesta egiteko 18/98 + auziaren aurka kale bilkurok antolatu zituztenen esanetan, "azpimarratzekoa da horrenbeste jende elkartu izana eta elkarretaratzeek izan zuten kutsu irekia eta zabala". Era berean, nabarmendu nahi izan dute zapatuan Bilbon egin zen manifestaziora Debagoienetik bost autobus eta hainbat auto hurbildu zirela. "18/98 auziak dakarren eskubide zibil eta politikoen urraketak geroz eta gizarteratuago daudela ikusten dugu; horrenbestez, ekitaldi horiek zuten helburua bete egin dela esan dezakegu", diote bultzatzaileek.



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

**Softwarea eta Aplikazio Informatikoak Alokatzeko Zerbitzuak**

**Debagoiena**
martxoak 8
ARRASATE
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Iraunkor)
Ordutegia: **18:00-20:00**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Teknologia azkar zaharkitzen da. Softwarea alokatuz gero, programak erosteko **kostu finkoez ahaztu eta ez duzu instalazio eta mantentze lanaz kezkatu beharrik izango.** Mintegi honetan, zerbitzu hauek kontratatzeko diru laguntza nola lor dezakezun ere erakutsiko dizugu.

Informatzeko eta izena emateko:
**902 252 595**
**www.miramondigital.com**
**cursos@miramondigital.com**

Antolatzailea:
Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
euskadi
e-gipuzkoa
SPRI


## DEBAGOIENEAN LABUR

### Elkarrik elkarretaratzeak egingo ditu zapatuan, Bilbon, Gasteizen eta Donostian

Zapaturako, eguerdiko 12etarako hiru elkarretaratze deitu ditu Elkarrik: Bilbon, Gasteizen eta Donostian. ETAren indarkeria etetea eta Batasunaren legeztatzea lehenbailehen bete daitezen dei larria egiten du Elkarrik. Hiru aldarrikapen nagusi egingo ditu Elkarrik: indarkeriarik eza, bazterketarik eza eta konponbide negoziatua.

### Abiadura Handiko Trena eraikitzen hasiko direla esan du Alvaro Amann sailburuak

Eusko Jaurlaritzak onartu du diru zati bat onartzea *Euskal Y*-a eraikitzen hasteko. Hain justu ere, Gipuzkoako zati bi, Ordiziatik Itsasondora doana eta Irungo zati bat egiten hasteko, 77 milioi euro bideratuko ditu Jaurlaritzak. Era berean, Alvaro Amann Garraio eta Herrilan sailburuak gutun bat igorri dio Espainiako Sustapen ministroari Euskadiko Lastertasun Handiko Trenean inplika dadin.

### Korrika laguntzaileak egiteko mahaiak jarriko dituzte zapatuan ibarreko kaleetan

Arrasaten (Portaloian), Bergaran (San Martin plazan), Eskoriatzan (Herriko plazan) eta Elgetan (Mendizaleen plazan) mahaiak jarriko dituzte oraingo zapatu eguerdian Korrika laguntzaileak egiteko. 12 euroren truke Korrikaren pina oparituko zaie laguntzaileei.



### Urteko egunik hotzenak, oraingo astekoak

Elur denboraleak joan eta etorri dabiltza negu gorri honetan: euria, elurra, izotza eta hotza eguneroko bihurtu zaizkigu azken asteotan. Oraingoan, gainera, neguko egunik hotzena jasan dugu: martitzenean 8,6 gradu zero azpiko hozberoa izan genuen Arrasaten, eta Bergaran eta Oñatin 8 gradu zero azpitik izan zen minimoa. Ondorioz, izotz-gangarra ikusgarriak agertu zaizkigu hanhemenka (argazkian, Arantzazu eguaztenean), eta lantegi batzuetan, Arrasateko Fagor Ederlanen esaterako, lan barik egon dira argi indar barik geratu zirelako martitzenean. /ENEKO AZKARATE


Servimasa

**Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak**

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
**BERGARA**

ANTZUOLA

## Maristen gaineko hitzaldia izango dugu datorren eguenean, Olaranen

Maristek egindako San Joseren irudiaren 75. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hitzaldi batekin hasiko dira ospakizunok. Antzuolan marista egondako Jose Luis Santamariak egingo du hitzaldia eguenean, hilak 10, Olaranen. 18:30ean, maristen gaineko erakusketa inauguratuko dute, eta ondoren izango da hitzaldia.

**PELLO AÑORGA IPUIN KONTALARIA**

Bihar, zapatua, 18:30ean, Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa izango dugu, Udal Liburutegian. /A.I.

ARAMAIO

## Bigarren eskuko liburuen azoka egingo dute datorren hilean

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada liburu azoka antolatzen dabil. Herritarrei eskatuko dizkiete azokan saltzeko liburuak, edozein gairen gainekoak eta edozein hizkuntzatan idatzitakoak.

Jakinarazi digutenez, azoka horretan batutako dirua Angolara bidaliko dute; misiolari dagoen apaiz batek herritarrei laguntzeko abiarazitako proiektuari ematea da asmoa. Dirua bidean ez "galtzeko", ezagunen bitartez bideratuko dute. /U.M.

ELGETA

## Kanpaina hasi du Udalak, herritarrek autobus zerbitzua erabiltzeko

Udalak garraio publikoaren erabilera bultzatzeko kanpaina hasi du, "garapen iraunkorra ahalbidetzen duelako, trafiko arazoak eragozten dituelako eta aukera merke eta erosoa delako". Irailean zerbitzu berria martxan jarri zutenetik urtarrilaren amaierara bitartean, 1.724 bidaiarik erabili dute. Udalak nahiko lukeena baino txikiagoa da kopuru hori. Udalarendako gastu handia da zerbitzua mantentzea. 23.706 euroko kostua du eta Udalak 8.092 euro ordaintzen ditu. /I.A.




EDU MENDIBIL

BERGARA

## Haurtzaindegi publikoa eskatu zioten alkateari osoko bilkuran

Hainbat gurasok haurtzaindegi publikoa aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten astelehenean, San Martin plazan. 60 lagun inguru elkartu ziren eta erakusten zuten pankartan zera irakur zitekeen: *Alkate jauna: non eta noizko 0-3 haur eskola publikoa?* Jarraian, osoko bilkuran, inguruko herrietan haurtzaindegi publikoak martxan dituztela eta ea Bergaran zer gertatzen den galdetu zioten alkateari. Alkateak gaiaren gainean lanean dihardutela erantzun zien, "Udalaren betebeharra delako zerbitzu hori eskaintzea".

Hala, gurasoek euren kezka azaldu zuten, hurrengo ikasturtea gainean dagoelako eta ez dutelako nobedaderik sumatzen. /E.M.

OÑATI

# Familiak behar dituzte Saharako haurrak udan etxean jasotzeko

Saharako haurrek uda Oñatin pasatzeko familia bila dabiltza. Nubi gobernuz kanpoko erakundeak eta Oñatiko Udalak adostu dute *Oporrak Bakean* programa, eta uztaila eta abuztua Saharako umeek Oñatin pasatzeko familiak behar dituzte orain.

**ZAZPI ETA HAMABI URTE ARTEAN**

Frente Polisarioarekin batera osatu dute *Oporrak Bakean* programa. 7 eta 12 urte bitarteko umeak ekarri nahi dituzte, eta horretantxe ari dira lanean. Horretarako, udako bi hilabete horietan haurrak etxean izan nahi dituzten familiekin harremanetan jarri gura dute.

Interesa duten herriko familiak udalarekin zein Nubi elkartearekin harremanetan jarri besterik ez dute. Behar duten informazio guztia jasoko dute Gizarte Zerbitzura deitu eta Estherrengatik galdetuta: 943 03 77 00. Baita Nubi elkartera bertara deituta ere: 685 72 48 16/17/18. Martxoaren amaiera arte dute izena emateko epea. Oraindik ez dakite zenbat familia behar dituzten, baina beharraren arabera egokituko dute kopurua.

**NUBI ELKARTEA**

Oñatiko Udalak senidetze programa du sinatuta Saharako herriarekin, eta beste urte batzuetan etorri izan dira hango umeak Oñatira. Aurten, ordea, Nubi elkartearekin batera etorriko dira, Arrasateko elkarte horrek Debagoien osora zabaldu baitu *Oporrak Bakean*. /O.E.

**Zertzelada**

**Saharako 7 eta 12 urte bitarteko umeak udan etxean jaso nahi dituzten familiek martxoa bukatu arteko epea dute izena emateko**

ARRASATE

# Arrasateko zenbait gune dezente aldatuko dira datozen urteotan

Arrasate bizitoki egoki izateko helburuarekin lanean dabil herriko Udala. Inazio Lakuntza alkateak jakinarazi digu, besteak beste, 1.000 etxebizitzatik gora egin behar dituztela: "Horietatik ia-ia %50 babes ofizialekoak(...). Horrenbestez, hemendik bi urteraedo merkatua zabalagoa izango da bai erosteko, baita alokatzeko ere. Eta ez bakarrik diru asko dutenendako, gazteendako ere izango dira aukerak".

Horrekin batera, alkateak Garaia Poloaren garrantzia ere aipatu du: "Enpresak abiarazteko beste modu bat da (...). Oso inportantea da ikustea zer gertatuko den berrikuntza horrekin". /U.M.



U.M.

**Hurrengo urteotan 1.000 etxebizitza eraikiko dituzte Arrasaten.**

ARETXABALETA

## Bota dute Kaminerokua baserria, etxebizitza sozialak egiteko

Joan zen zapatuan bota zuten Aretxabaletako sarreran dagoen Kaminerokua baserria. Aspaldi egon behar zuen botata, baina ezusteko batzuk tartean atzeratu egin da. Tubos de Precision lantegi alboan dagoen baserriaren lekuan etxebizitza sozialak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak, 20 guztira. Etxebizitzon zozketa ekainean egin zuen Javier Madrazo sailburuak, eta dagoneko 18 izendatuta daude. Errentan emango dituzte aipatutako etxebizitzak, eta 50 metro koadrotik 70era bitartean izango dute. /M.A.

ESKORIATZA

## Javier Madrazo Bizigune programa sinatzera etorri zen Eskoriatzara

Astelehen goizean izenpetu zuten Bizigune programa Eskoriatzan. Ekimenean, Juan Carlos Bengoa alkateak eta Javier Madrazo sailburuak hartu zuten parte, besteak beste. Eskoriatzako etxebizitza hutsei buruzko hainbat datu eskaini zituzten. Esaterako, herrian hutsik dauden etxebizitzetatik momentuz bakarra dago errentan emanda, eta guztira 151 eskaera daude. Eskoriatzako herritarrek egin dituzte eskaerak, baina baita beste hainbat herritakoek ere ; hala azaldu zuen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak. /Z.V.M.

GATZAGA

## Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar herriko emakumeek

Bihar, herriko emakume taldeak (Sorginak) Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko du bazkari batekin. 14:30ean 30 lagun inguru elkartuko dira Gure Ametsa jatetxeko mahaiaren bueltan. Ondoren, dantza egiteko aukera izango dute *sorginek*.

Gazte eta helduek batera igaroko dute eguna. Urteroko ohiturari jarraituz isuskiak banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Hala ere, aurreko urteetan isuskia eskuratu duten *sorginek* ez dute horretarako aukerarik izango. /Z.V.M.



OIHANA ELORTZA

# Lourdes Herrasti

ARANTZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ANTROPOLOGOA

# “Aurkitutako plaka batek esan digu Elgetako gorpuzkiak Arrasateko herritar batenak direla”

## EUSKAL GUDARIEN PLAKAK

**“Bi pezetako txanpon batean landua zuen bere zenbakia gudari batek, eta soldata kobratzeko baja noiz eman zuen ikusita dakigu nor den, baina plaka gutxi kontserbatzen dira”**

## HERRITARREN LAGUNTZA, EZINBESTEKOA

**“Herritarren eta familiakoen oroimen ona da gure laguntzarik onena; Elgetako indusketetan, Antonio Iturricastilloren laguntza ezinbestekoa izan dugu”**

Elgetako bi hobitan, gerran fusilatutako sei pertsonaren gorpuzkiak aurkitu zituzten ekainean, eta Arantzadik indusketa eta antropologia lanak egin ditu. Lourdes Herrastik Bergaran azaldu ditu lan horiek astean.

OIHANA ELORTZA

**Identifikatu dituzue dagoeneko Elgetako bi hilobietan aurkitutako gorpuzkiak?**

Ikerketa antropologikoa bukatuta dago. Badakigu zuten gutxi gorabeherako adina eta garaiera, adibidez. Baten izena ere jakin dugu eta orain ikusi behar dugu horren bitartez besteen izenak jakiterik dugun edo ez. Orain bestelako prozesu batean sartzen gara, prozesu dokumentalean, eta familiarekin egon eta ahalik eta informazio gehien lortu behar dugu. Adibidez, harremanetan jarri gara Zugatza sendikoekin, baina eurek ez dute erreferentzia askorik, eta orain beste bide bat hartu beharko du. Hemendik aurrera, peskizak, arrastoak segituz egin beharko dugu lan.

**Zer jakin duzue orain arte?**

Badakigu egun hartan nortzuk hil ziren. Soldata zuten gudariek, eta badakigu baja noiz eman zuten. 20 bat izen ditugu bueltaka, eta horietako sei dira.

**Hildako bakarra identifikatu duzue orain arte?**

Bai. Gainera, identifikazioaren %100a ez da inoiz lortuko. ADN frogak ere denak denekin egin beharko genituzke, ez du balio batena bakarrik egitea. Hori egitea oso garestia da eta oraindik inork ez digu hori egiteko eskatu. Guri ikertzeko eskatu digute orain arte, eta horixe egiten dugu.

**Non aurkitu zenituzten Elgetako gorpuzkiak?**

Elgetan bi tokitan egin ditugu indusketa lanak: Intxortan eta Antsoategi baserrian. Intxortako mendietan geldirik egon zen frontea 1936tik 1937ra, eta hantxe egin ditugu indusketa lanak. Berez, *matakana* bat zen eta obus batekin zeharo lehertuta zegoen. Gelditzen ziren eskeletoen hezurrak eta morteroen piezak atera genituen.

Bigarren indusketa lanak Antsoategi baserriaren ondoan egin ditugu. Baserritik bi metrora lehenengo hobia aurkitu genuen. Bertan hiru gizonezkoren hezurrak zeuden, eta beherago, hamar bat metrora, beste hiru pertsonaren eskeletoak zeuden bigarren hobi batean.

**Nork lagundu dizue hobi horiek aurkitzen?**

Batetik, Jabier Elizegi andoaindarrak. Hark bazekien anaia zaharrena Intxortan hil zela. Bere kasa hainbat ikerketa egin zituen eta Elgetara etorri zen batean, Antonio Iturricastillorekin jarri zen harremanetan. Antoniok gogoan zuen Intxortan burezurrak ikusi zituela txikitan. Ondoren, Jabierrek Intxorta erakutsi zigun guri eta geroztik, Iturricastillok berak esan zigun Antsoategi baserrian fusilatu batzuk zeudela hilobiratuta. Antonio Iturricastilloren laguntza ezinbestekoa izan dugu.

**Herritarrak, familia artekoak, izaten dira zuen laguntzaileak?**

Orain arte horrela izan da gehienetan, esaten dutena oso garbi izan behar duteeta. Andoainen, adibidez, hango baserri batean, *hildakoen zelaia* esaten zioten zelai bat dute. Bazekiten han lurperatuta zegoela bat. Zaldibian ere, herritar batek ondo zekien bere aita izandakoaren lursailetan zegoela lurperatuta norbait. Tokia garbi zuen, eta hari esker aurkitu genuen.

**Orain arte zenbat tokitan ibili zarete lanean?**

Gipuzkoan, Zaldibian, Donostian, Andoainen, Hernanin, Mutrikun eta Elgetan, esaterako. Beste batzuk ere detektatu ditugu, baina oraindik ez ditugu kanporaketak egin.

**Kanpoan ere ibili zarete, ezta?**

Bai. 2000tik hona, Leonen, Asturiasen eta Burgosen askotan, adibidez.

**Zein egoeratan zeuden Elgetan aurkitutako hezurrak?**

Zerikusi zuzena du zer-nolako lurzorua dagoen inguruan: buztina, harea ... Elgetan, adibidez, oso ondo kontserbatuta daude eskeletoak eta gehiena berreskuratu dugu. Beheko hobiaren ondoan zuhaitz bat dago eta haren sustraiak hezurretaraino iritsi dira, eta guk ere ukitu ditugu lurra hondeatzeko makinarekin, baina hala ere oinarri sendoa dute hezurrek.

**Bitxikeriarik aurkitu duzue?**

Lehenengo hobian, kanporatu genuen lehenengo eskeletoak lau behatz apurtuta ditu ezkerreko eskuan. Seguruenik ume garaian edo gazte garaian hautsi zituen behatz horiek eta harrezkero kailua egin zitzaion. Batzuetan lehenengo galtzen direnak izaten dira eskuak, baina kasu honetan esku osoa daukagu.

**Jakin duzue nola hil ziren?**

Tiroz hil zituzten. Seguruenik, gainera, ez banan-banako tiroarekin, baizik tiro-segida edo pelotoi batekin.

**Gorpuzkiez gain, tenedorea, alkandorako botoiak, gerrikoaren belarriak eta plakak ere aurkitu dituzue Elgetako indusketetan.**

Bai. Batek, gainera, urrezko eraztuna du eta beste batek urrezko aho protesia. Hortzetako eskuila, dominak, sua pizteko metxero bat eta gudarien bi plaka ere gorpuzkiekin batera batu ditugu.

**Badakizue norenak diren plakak?**

Batek bi pezetako txanpon batean landua zuen bere zenbakia: 711.513. Zenbaki horren bitartez jakin dugu zeini zegokion plaka hori, batailoietan parte hartzen zutenak zenbakia baitzuten soldata kobratzeko. Horrela jakin dugu Arrasatekoa zela hildako hori, eta *Dragoi* batailoiko kidea zela. Pentsatzen dugu harekin batera daudenak batailoi berekoak direla.

**Zenbat plaka aurkitu dituzue?**

Batailoi guztietakoek zituzten plaka hauek; *Dragoi*, adibidez, batailoi sozialista zen. Batailoi guztiek antzeko ekipamendua zuten, baina hala ere oso gutxi kontserbatzen dira. Bi gudari plaka horiek Sabin Etxean gordetzen dira.

**Zailtasunik izaten duzue indusketa lanak hasi eta amaitzeko?**

Arabako toki batean, adibidez, eskatu dugu baimena lanekin hasteko eta oraindik ez dugu baimenik lortu. Nafarroako toki batzuetan ere ez dugu beti lortu gura genukeena, baina normalean orain arte ez dugu aparteko zailtasunik izan.

**Gertatu zaizue lanean hasi eta ezer ez aurkitzea?**

Bai. Jendearen oroimen ona da guri laguntza handien ematen diguna. Bestela, non hasten zara miatzen?

Burgosen eskatu ziguten behin hilerria miatzeko. Goiz osoan aritu ginen hilerrian lurra hondeatzeko makiarekin lanean eta azkenean ez genuen ezer aurkitu. Eurek bazekiten han zegoela edo, behintzat, euren oinordekoek esan zieten hilerrian lurperatu zituztela, baina ez genituen gorpuzkiak aurkitu. Ez dakizu zein gogorra den ezer ez ateratzea. Horregatik erabakitzen dugu lanean hastea gauzak argi ditugunean, bestela ilusio faltsuak sor daitezke eta samina oso gogorra da.

**Hunkitzen zaituzte zuen lanak?**

Gu arkeologian ibiltzen gara, baina badago ezberdintasun bat arkeologia eta indusketa horien artean: arkeologian aztertzen ditugun ondareak aspaldikoak dira, emozionalki ez duzu inolako diferentziarik. Gerrako fusilatuen indusketak egiten ditugunean, ordea, familiakoak dituzu ondoan eta oso gogorra da. Burgosen egin genuen indusketa batean, adibidez, hildakoaren anaia eta iloba zeuden gure ondoan. Harrezkero familiak izan duen bizimodua oso gogorra izan da, eta hori guztia jakinda zaila da ez hunkitzea.

**Nola erreakzionatzen dute senitartekoek zuen emaitzak jakinda?**

Sekulako bakea hartzen dute. Udan, adibidez, Zamoran egon ginen, hilerri baten, baina ez zegoen inolako seinalerik. Gure laguntza eskatu zutenek nahi zuten eurek zekitena erakustea eta agerian uztea han jendea zegoela lurperatuta. Bi metro behera jaitsi ginen eta jadanik esperantza galduta genuenean, hezurrak aurkitu genituen; erabat aldatu zitzaien aurpegia.

# Gutunak

## Bergarako herriari eta lapurrei

Aurtengo urtarrilean 5 urte pasa dira Angiolillo anarkistak azkeneko momentu latzak pasa zituen kartzela zaharrean gaztetxe berria eraikitzen hasi ginenetik.

Bost urte hauek ez dira makalak izan. Momentu zail asko pasa ditugu: obra proiektu sakon bat, desalojo saiakera bat (atxiloketa eta guztiz…) eta pentsaezina iruditu arren bost lapurreta egon dira.

Gaztetxea Bergarako gazte guztien etxea da. Gaztetxea herriarena da. Gaztetxean lapurtzea herriari lapurtzea da. Gazte Asanbladakook argi esan dugu: lapurrak, alde gaztetxetik!

Gaztetxea gune autogestionatua da. Bost urte hauetan inongo irabazi asmo ekonomikorik izan ez duena, eta inoiz izango ez duena ere.

Gaztetxean, etekinetatik eratortzen den dirua; gure ekintza, gestio, behar eta proiektuak garatzeko dira. Gure gastuak betetzeko, eta inoiz ez ekonomikoki aberasteko.

Bergarako gaztetxeak, Euskal Herriko gaztetxe gehienek bezala, ez du inongo dirulaguntzarik jasotzen, beraz gaztetxean lapurtzen duenak ez dauka ez bururik, ez arrazoirik ez eta lotsarik ere. Horrelako pertsonaiarik ez dugu nahi gaztetxean, ezta gure herrian ere! Lapurtu nahi baduzu, egin ezazu aberatsen etxean!

BERGARAKO GAZTE ASANBLADA
Bergara

## Manipulazioa

Berriz ere Eusko Jaurlaritza guztion diruarekin herritarrak lotsagabeki manipulatzen ari da. GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-en irakurri dudanez, orain badatozkigu "Abiadura Handiko Trenari esker, egunero 1.000 kamioi gutxiago ibiliko dira Irun eta Gasteiz artean" esanaz. 1.000 kamioi gutxitzea? Eta zer da hori benetan? Asko? Gutxi? Ba, hona hemen datuak demostratzeko hori hutsaren hurrena dela eta Eusko Jaurlaritza modu zabarrean manipulatzen ari dela:

- 1990-1999 epean merkantzien garraioa (tonatan) %280 hazi zen.
- Azken hamar urteotan Irundik pasatzen den kamioi kopurua bikoiztu egin da: gaur egun, 8.000-9.000 pasatzen dira. 2010erako kopuru hau 20.000 izatea espero da.
- Ez dut inor datuekin aspertu nahi. Konprobatu zuek zeuok Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide eta Garraio Departamentuaren webgunean datu errealak, *Trafiko intentsitateak* deritzon atalean. Eta begiratu, adibidez, N1-eko aforoak. Ikusiko duzue nola azken 7 urteetan kamioi kopurua 5.000-7.000 unitatetan gehitu den.

Eta AHTk 1.000 kamioiren joan-etorria gutxituko du. Hain larria ez balitz asuntoa barrez lehertzekoa izango litzateke!

IÑIGO IÑURRATEGI
Bergarako Aralarko zinegotzia

## Emakumeon pobrezia eta prekarietatearen aurka, beti aurrera!

Aurtengo martxoaren 8an, ELA, ESK eta STEE-EILASek emakumeen pobrezia eta prekarietatea salatu nahi dute. Euskal Herrian ere, besteak beste, emakumeak daude egoerarik kaskarrenean, pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesten arabera. Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonetatik %70 emakumeak dira; etxean emakumea buru duten familietan pobrezia bost aldiz handiagoa da gizona buru dutenetan baino; eta emakumeen langabezia-tasa (%9,5ekoa) gizonena baino (%6,5ekoa) handiagoa da.

Zergatik dira emakumeak pobreziaren eta prekarietatearen ezaugarri? Emakumeok bai gizartean eta bai lanean gero eta leku handiagoa hartzen ari bagara ere, desabantaila nabarmenarekin sartzen gara lan-merkatuan; gainera, diskriminazioak gure bizitza-ziklo osoan irauten digu, emakume izateagatik.

Gure bizitza pertsonalaren eta profesionalaren artean aukeratzera behartzen gaituzte; pertsonak dohainik zaintzeko lana hartu behar izaten dugu geure gain, ez dagoelako zerbitzu publikorik edo daudenak nahikoak ez direlako. Ondorioz, gure lanaldia bikoitza da, ez delako onartzen bizitza pribatuak sortzen duen lana emakumeen eta gizonen artean berdintasunez banatzekoa dela. Gainera, emakume gazte, heldu nahiz edadetuei ukatu egiten zaigu bizitzaproiektu propioa, autonomoa, independentea eta baldintza duinekoa izatea, eta, beraz, etxebizitza eskuratzea eta nahikoa errenta izatea. Gu gauden espazioetan edo egon nahi dugunetan ez digute uzten ukitzen gaituzten gaietan presente egon eta parte hartzen, ezta gure etorkizunari buruz erabakitzen ere.

Horrela, bada, kontraturik gabeko enpleguak, egonkortasunik eza, ebentualtasuna, soldataren diskriminazioa, kategoria profesionalik baxuenak, lanaldi partziala, azpikontratazioa eta langabezia-mailarik handiena dira gure lanen eta lan-baldintzen ezaugarri nagusiak. Horren guztiaren ondorioz, gure bizi-baldintzak eta gizarte-eskubideak pobretuz doaz arian-arian, eta gizartean gero eta emakume gehiago dago baztertuta (berdin dio gaztea, heldua edo edadetua izan).

Horregatik, sindikatu honetatik emakumeek jasaten duten zapalkuntza eta diskriminazioa salatzen ditugu eta, bai gaur eta bai egunero, emakumeen aldeko borroka jartzen dugu gure sindikatu-lanaren ardatzean:

- Emakumeen enplegua egonkorra eta kalitatezkoa izatea lortzeko.
- Gizartearen eta lanaren eremu guztietan ikusgarriak izan, presente egon, parte hartu eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko.
- Gizarteak zaintzeko lana baloratzeko eta erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean banatzeko neurriak ezartzeko.

Gainera, pertsona, enpresa eta erakunde publiko guztiei zera exijitzen diegu: aktiboki inplikatu daitezela zapalkuntza-eredu horiek eta horiei loturiko pobrezia, emakumeei hain nabarmen eragiten diena, erabat desagerrarazteko.

ELA, ESK ETA STEE EILAS
Debagoiena

## Ezker Abertzale zibil eta zabala

Aralar etorkizuneko ezker abertzalearen oinarriak ezartzeko lanean ari da bere sorreraz geroztik. Egun murgildua dagoen krisitik ateratzeko, beharrezkoa da ezker abertzalea berritzea, berrasmatzea. Gure ustez, honako hauek dira berritze horretan ezinbesteko elementuak:

Zibila: etorkizuneko ezker abertzaleak bide politiko eta zibiletatik bakarrik egin behar du lan bere helburuen alde, ezkerretik eraikitako Euskal Herri independentearen alde. Eta hori ez komenientzia taktikoarengatik, guretzat eskatzen ditugun eskubideak inori ukatu nahi ez dizkiegulako eta erabateko autonomiaz arituko den ezker abertzalea behar dugulako.

Zabala: ezker abertzalea anitza da, Batasuna eta Aralaren batuketa baino are gehiago. Gizartean dagoen ezker abertzale soziologiko zabalak bere maila berdineko ordezkaritza politikoa izan behar du erakundeetan eta politikan, gaur gertatzen ez den bezala. Horretarako ordea, espazio politiko bakar baina anitz hori berrasmatu eta egituratu beharra dago.

Eraginkorra: Eraginkorrak izan behar dugu eta horretarako politikan aritzeko modua ere aldatu egin behar dugu. Gizarteak ikusi egin behar du, goi-politikaz gain, posible dela bestelako politika sozial bat ere egitea, bestelako azpiegitura politika bat, zerga-politika birbanatzaileagoa, etxebizitza politika aktiboagoa, edo eta lana eta familia uztartzeko neurri eraginkorragoak hartzea… posible dela, hitz batean, elkartasunean oinarritutako politika egitea. Euskal erakundeen politika neoliberala agerian utzi eta alternatiba egingarriak eskaintzea dagokio ezker abertzaleari.

Gai honekin hitzaldi sorta bat antolatu dugu, Euskal Herriko hamaika herritan. Bailaran, Oñatin izango da, martxoaren 9an, eguaztena, 7retan Kultur Etxean, Joxe Iriarte *Bikila* eta Mikel Irizarren eskutik.

DEBAGOIENEKO ARALAR
Debagoiena

## Euskal preso politikoak borrokan

Euskal preso politikoek borrokaldi berri bati eman zioten hasiera urte berriarekin batera. Txanda ezberdinetan; 10 egunez bakoitzak, patiora irteteko duten eskubideari uko egingo diote, zigorgelan emango dituzte eguneko 24 orduak, 240 ordu lau pareta artean. Kepa Urra preso aretxabaletarrak otsailaren 23tik dihardu itxialdian, bihar, martxoak 5, arte.

Borroka hauen bitartez, beraien estatus politikoa aldarrikatu gura dute; euskal prozesu politikoan parte hartzeko duten eskubidea, gatazka honek duen konponbide justu eta demokratikoan. Bestalde, beraien oinarrizko giza eskubideak ere aldarrikatu nahi dituzte, behin eta berriz urratuak izaten ari baitira.

Horrela, bada, Aretxabaletako ezker abertzaletik herritar guztiok deitzen zaituztegu, zuen elkartasuna Kepari iristeko asmoz herrian egingo den kontzentrazioan parte hartzera. Bihar, zapatua, izango da hori. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu astean barrena antolatu diren ekintza ezberdinetan (Senideek deitu ohi duen kontzentrazioan eta auto karabanan) parte hartu duten guztiei. Keparentzat gure agurrik beroena.

ARETXABALETAKO BATASUNA
Aretxabaleta

### Zuzenketa

Orain dela aste bi, otsailaren 18ko GOIENKARIAn, *Atzeskua* atalean, sagardoa apurtzeko tramankulua Jabier Bikuñak asmatu zuela idatzi genuen, Jabier Guridi idatzi beharrean. Izan ere, Jabier Guridi araoztarra da koinatuarekin batera sagardoa apurtzeko erabiltzen duten tresna asmatu duena.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Itxaso Berezibar, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


6x0
Hipoteka
gaztea
6x0
SEI HUTSARI EZETZ AURKITU
HAU BEZALAKO HIPOTEKA BAT
Hipoteka bat hartu aurretik, ondo aztertu eskaintza guztiak. Guk zure alde jokatuko dugu.
Hipoteka Gaztea 6x0=
%0ko interesak lehenengo 6 hilabeteetan.
Epearen gainerako aldian: Euriborra + 0,60.
Irekitze Komisioa: %0,50. Amortizazio Aurreratuaren Komisioa: %0. Kitapen Aurreratuaren Komisioa: %1.
Kuota Malgua*. Epea: 35 urte arte. Zenbatekoa: tasazio-balioaren %100 arte**.
U.T.Bren adibidea: %2,852. 2005-01-24ko EBOn argitaratutako urtebeterako azken Euriborraren (%2,301) arabera kalkulatua, 180.000 €ko maileguarentzat, 25 urterako.
EUSKADIKO KUTXAREN
ZURE ALDEKO APUSTUA
6x0
*KUOTA MALGUA: Kuotaren zenbatekoa aldatzeko aukera. Ordaintzeko eguna hautatzeko aukera. Tartean kapitalaren bi gabealdi eskatzeko aukera.
** Kasu horretan, abal-emaileen berme osagarria eskatuko da eta epearen gainerako aldian Euriborra + 0,80ko interesa aplikatuko da. Eskaintza hau 2005/02/21etik aurrera egingo da EAEko sukurtsaletan, 35 urte arteko gazteentzat.
Zurekin elkarlanean
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# Aloña Mendi, Mondra baino larriago

## Domekan, Mondrak puntuak ezinbestean lortu gura dituen Aloña Mendi izango du zain

XABIER URTZELAI

**Domeka arratsaldean Oñatiko eta Arrasateko futbol zaleek badute hitzordua, bi herri horietako talde nagusiek derbia jokatuko dute-eta (16:30ean, Azkoagainen). Mondrakoek derbiaz gozatzeko arrazoi handiagoak dituzte; Aloñakoak gertu daude sufritzeko, baldin eta puntuak eskuratzen badituzte.**

Taldeetako presidenteak izaten dira derbiak modu berezian bizi izaten dituztenak. Eta, domekako derbiaren gainean berba egiteko Mondrako presidente Jose Luis Ezkurrarekin eta Aloña Mendiko presidente Javier Lazpiurrekin izan gara. Neurri handi baten, presidenteen arteko harremanak baldintzatzen du kluben arteko harremana, eta jakinekoa da Jose Luis eta Javier ondo konpontzen direla. Hauxe esan digu Ezkurrak: "Lagunak bai, baina partidua amaitutakoan, bitartean ez dago lagunik". Javier Lazpiurrek ere beste horrenbeste esan digu: "Derbia jokoan dagoen bitartean kontrarioak, arerioak, etsaiak... Gura duzuna ipini". Horrekin batera, Oñatiko taldeko presidenteak esan digu Aloña puntu beharrean dagoela: "Esango nuke Mondrak dagoeneko egin dituela aurtengo etxeko lanak, baina guri asko geratzen zaigu egiteko. Jokalari oso gazteak ditugu taldean, baina azkeneko boladan nahiko ondo gabiltza, azkeneko lau jardunaldietan ez dugu-eta galdu". Alde horretatik, Jose Luis Ezkurrak ere Mondraren bolada ona azpimarratu gura izan du: "Orain arte euren maila baino beherago egon diren jokalariak oso ondo jokatzen hasi dira; eta ondo ibili diren jokalariek ez dute behera egin. Joan den astean Tolosari nahiko txukun egin genion aurre, liderra zela kontuan hartuta. Esango nuke Mondrak orain egingo duela gora".



GOIENKARIA

**Atxabalpen, Mondrak eta Aloña Mendik 0-0 egin zuten.**

Horretarako, baina, Oñatin irabazi egin behar. Javierrek argi dauka etxeko taldeak abantaila izaten duela: "Futbol zelaia ondo ezagutzea abantaila da, eta guk txoko guztiak ezagutzen ditugu. Publikoari dagokionez, Arrasatetik ere jende asko etorriko da, hortaz, ez dut uste alde handirik izango denik. Gainera, gero eta gehiago etorri hobeto, giro politagoa izango da".

**BERGARAN ENTRENATZAILE ALDAKETA**

Bergarako zuzendaritzak astean zehar erabaki du entrenatzailea aldatzea, eta Igor Gordobilen ordez Fernando Oregik zuzenduko du taldea. Oiartzunen kontra estreinatuko da (zapatuan, 16:30ean, Agorrosinen). Aretxabaletako UDAk, berriz, Zarautzen jokatuko du (domekan, 16:30ean).

## *Kirolabur*

**ESKORIATZA/**BERBALDIA

Domekan, 10:45ean, areto futboleko Boomerang Interviu taldeko Jesus Candelas entrenatzaileak berbaldia egingo du kiroldegian. Euskal Herriko entrenatzaile guztiak daude gonbidatuta, eta arlo teknikoa eta jokalariekin egindako ariketak landuko dituzte.

**ELGETA/**ARETO FUTBOLA

Datorren asteburuan hasiko dute Elgetako areto futbol txapelketa, eta izena eman gura duenak, jakin, eguaztena izango dela horretarako azken eguna. Horretarako, 943 76 80 22 telefono zenbakira deitu.

**GATZAGA/**ZIKLISMOA

Bihar, zapatua, Dorletako Ama Txirrindulari Elkartekoek aurtengo denboraldiko talde eta babesleak aurkeztuko dituzte. 10:30ean Dorletako Amari lore eskaintza egingo diote, eta 11:30ean egingo dute aurkezpena, Gatzagan.

**BERGARA/**ARGAZKIAK

Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioak *Elkartasunean mendia bide* izeneko argazki erakusketa antolatu du. Martxoaren 20ra arte Bergarako kultura etxean egongo da ikusgai.


# Gazte ikastaroak



## MAGIA IKASTAROA

Xixka elkartearen eskutik
(Gipuzkoako Ilusionismo Elkartea)

- **Egutegia:** apirilaren 7tik maiatzaren 26ra
- **Noiz:** eguenetan
- **Ordutegia:** 18:30etik 21:00etara
- **Matrikula:** 20 € / 12 € ikasle eta langabeentzat



## SABEL DANTZA: HASTAPENA ETA SAKONTZEA

Irakaslea: Jaione Albeniz

- **Egutegia:** apirilaren 9tik maiatzaren 28ra
- **Noiz:** zapatuetan
- **Ordutegia:** 10:00etatik 12:00etara (hastapen maila)
  12:00etatik 14:00etara (sakontze maila)
- **Matrikula:** 20 € / 12 € ikasle eta langabeentzat
- **Lekua:** Musakolako kiroldegian

**Plaza mugatuak!**

**INFORMAZIO ZEHATZAGOA: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net***

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Gazteria saila**



URKIOLA

CUSTO • NOLITA • SAVE THE QUEEN • ARMANI • DONA KARAN • GRISBY • BATO PETO • AMAYA ARZUAGA • OHDD • MR. CAT • REPLAY

Barrenkalea 13 BERGARA



**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88




GRUPO ARKAUZ
1950
Zure etxea da
2005
ARKAUZ
ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA
ETXE MOBEL
MUEBLES
ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARETXABALETA
ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA
FAGOR
Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA
ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK
expert
Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 4tik 11ra


Detaile guztiak.


Opel Astra modu batean…


… eta beste batean.


Raul Rodriguez aretxabaletarrak margotu du auto hori.


Aurreko hegala, 450 euro.


Gozatzeko eta erakusteko.


Aerografia edonon.


Tatuaje hori, 480 euro inguru.

# TUNING

## Autoa, gidariaren nortasunaren ispilu


Ihes-hodiak, 450 euro inguru.


Maletategia, tapizatuta.


Neoizko argiekin.


Renault Megane bat, itxuraldatuta.


Nortasuna txoko guztietan.


Jabeak, harro.


Tapizeria, gustura.

Tuning: nork bere autoaren zati batzuk aldatzea edo hobetzea, gustuko itxura izan dezan. Hala dio autozaleen hiztegiak. Sinplea dirudi, baina esparru zabala da. Maila eta xehetasun asko dituen zaletasunaz ari gara. Debagoienean egon badago tuningzalerik. Guztiek ezagutzen dute elkar eta esaten dute "gero eta gehiago" direla gurean ere, nahiz eta onartzen diguten autoa "goitik behera" aldatuta duenik ez dela hemen ikusten.

Izan ere, oso zaletasun garestiaz ari gara. Aukerak milaka daude: autoari hagun (llanta) handiagoak ipintzetik kanpotik eta barrutik itxuraldatzera; edo, itxuraz gain, motorra eta potentzia ere aldatzea. Eta prezioak ere, horren arabera daude. "Batzuek 36.000 euro gastatu izan dute autoari tuning egiten", diosku Raul Rodriguez mekanikari aretxabaletarrak.

**IKUSTEKO ETA ERAKUSTEKO**

Neurri horretara iritsi barik, debagoiendarrek ere dezente inbertitzen dute euren zaletasun gogokoenean: 6.000-9.000 euro inguru. Piezak alde batetik doaz; gero, eskulana, mantentzelanak, asegurua… gehitu behar dira. Baina emaitzak merezi du; hala dio Paulo Pera bergararrak, harro-harro bere laranja koloreko Opel Astra autoarekin: "Batik bat neuretako egiten dut, autoa jabearen isla delako, eta nire autoa bakarra izan dadin nahi dudalako. Eta erakusteko ere bai, jakina". /14

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

AUTOAK/ DEBAGOIENEKO ZENBAIT TUNING-ZALEREKIN EGON GARA

# Auto hau bezalakorik inon ez dago

IBARREKO ZALEEK DIOTENEZ, "TUNING-AREKIN SEKULA EZ DUZU BUKATZEN; BETI EGIN DIEZAIOKEZU AUTOARI ALDAKETA GEHIAGO"

LEIRE KORTABARRIA

**Gehienek antzeko arrazoiengatik dabiltza tuningean: autoa euren bizitzako zati garrantzitsua da, euren nortasunaren jarraipena, eta horri dedikatzen diote denbora eta dirua. "Beste batzuek bidaiatan-eta gastatzen duten bezala, nik autoan", dio Paulo Pera bergarararrak.**

Tuning-ean ez da bat kasualitatez edo kapritxoz sartzen: txikitandik gustatzen zaizkie autoak, eta, denborarekin, zaletasun hori eurendako aproposa zela konturatu dira. Fernando Vaz bergararrak, adibidez, bi auto izan ditu eta biei egin die tuning-a; Paulo Perak, bergararra bera ere, hiru auto eraldatu ditu hamar urtean.

Debagoienean ez dago muturreko kasurik, hau da, autoa goitik behera guztiz itxuraldatu duenik; baina gurean ere, zaleak fin dabiltza. "Lagun taldean bost batek egin diogu tuning-a autoari", diosku Arrasateko auto-tailer baten lan egiten duen Fernando Viana barakaldarrak. "Garestia? Zer nahi duzun arabera. Neuk 9.000 bat euro gastatu ditut nirean: hegalak, tapizeria, hagunak…", gaineratzen du. Berak egin ere, egiten du tuning-a, "baina batik bat soinu instalazioak eskatzen ditu jendeak", argitzen du.

### GARESTIA, BAINA ERRAZA

Majo inbertitzeko gertu egon behar du, bai, zaleak. Hona hemen prezio batzuk, orientazio moduan: aurreko hegala, 450 bat euro; argiak, 480; azpiak, 180, parea; ihes-hodia, 450; aleroia, 240 bat; bolantearendako zorro txukun bat, 90; eskuko balaztarendako bat, 66 bat; hagunak, 1.200; spoiler-a edo atzeko beheko pieza, 240… Horiek dira piezen prezioak; gehitu behar da eskulana, aukeratutako margoa eta, gero, mantentze lanak, asegurua… Gainera, neurri batzuk legetik kanpo gera daitezke, eta kasu horretan, homologatu egin behar da, horrek dakarren lan eta kostuarekin.

Baina beldurra galtzera animatzen gaitu beste zale batek, Bergarako Fernando Vazek: "Ni hasi nintzenean, orduan bai zela zaila tuning-a egitea, piezak aurkitzea… Orain oso erraza da hastea, eta piezak dituzu dagoeneko 30 euro ingurura". Beldur izpirik gabe sartu dira mundu horretan Debagoieneko gazte asko, Vazek dioen bezala: "Gero eta gehiago dago. Mutil askok gida-baimena atera eta berehala hasten dira".

### BESTE AUKERA BATZUK

Aurrezki guztiak tuning-ean gastatu barik, badaude erdibideak. Tuning-aren barietate bat da aerografia, hau da, autoei tatuajeak edo marrazkiak egitea. Tamaina, kolore eta diseinu askotarikoak egin daitezke.

Norberak erabakitzen du, horrenbestez, noraino heldu nahi edo ahal duen autoa eraldatzeko unean. Kontua da autoaz disfrutatzea eta, batez ere, segurtasuna begi bistatik ez galtzea: piezak aldatzeko orduan, utzi autoa beti aditu baten esku.



LEIRE KORTABARRIA

Mikel Gil arrasatearra eta Fernando Viana Arrasaten lan egiten duen barakaldarra, euren autoekin.

## Kontzentrazioak, zaleen elkargune

**Tuning-a egiten dutenek komunitate bat osatzen dute. Gehienak erreferentzia berberak dituzte eta leku txikietan, ibarrean kasu, elkarren berri izaten dute.**

**Hori horrela, tuning-zaleendako bilgune garrantzitsuak dira kontzentrazioak. Horietan, leku askotako zaleak batzen dira, normalean asteburu baterako-edo, eta ideiak elkartrukatu, autoak ikusi eta erakutsi, zirkuituetan ibili, lagunartean irten… eta lehiaketak ere egiten dituzte. Euskal Herrian, Zarautz edo Bilbo dira kontzentrazio leku batzuk; kanpoan, Medina, Miranda de Ebro, Valentzia…**

**Debagoiendarrek badute Euskal Herriko eta Estatuko egutegiaren berri, eta eurak ere joaten dira. Gehienek ez dute lehiaketan parte hartzen, baina gustura ibiltzen dira. Hori bai, kontzentrazioak gastu gehiago dira: "Gasolina, han egotearen gastua, tragoak, zirkuituan ibiltzea… horretarako ere dirua behar da", diosku Fernando Vazek. Hala ere, pozik joaten dira, ahal dutenean.**



4x4
aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

ZABALDU BERRIA!

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net







# “Lirain-en eskaintzen dugun zerbitzuarekin, emaitza onak ziurtatu egiten ditugu”

**Lirain estetika zentroko Mari Carmen Pardorekin bildu gara LPG teknikaren inguruan informazioa jasotzeko asmoz. Mari Carmen Debagoieneko estetika zentrorik handienaren arduraduna da, teknologiarik aurreratuenak erabiltzen dituzte bertan, eta LPG-aren abantailak aurkeztu dizkigu.**

**Mari Carmen, zergatik gomendatuko zenuke gorputz tratamendua egitea?**

Tratamendu mota horiek gorputzean leku konkretuetan ditugun gantzei aurre egiten laguntzen digute, eta, hala, silueta politago eta estetikoagoa lortzen dugu. Osasun maila hobea lortzen da gizon eta emakumeetan. Gure buruarekin gusturago sentitzen laguntzen digu. Egia esan, oso emaitza onak lortu ditugu gizonezkoetan ere, gorputz atal konkretuetan, adibidez sabelalde eta bularretan.

**Besteek eskaintzen ez duten zer eskaintzen du Lirainek ?**

Lirain bailarako estetika zentrorik handiena da, 300 m2 dira, hainbat kabinatan banatzen direnak lana hobeto egin ahal izateko. Horri guztiorri merkatuko azken teknologiak eta aparailurik aurrerakorrenak gehitzen badizkiogu, LPG teknika kasu, Lirainen premia bakoitzari egokitutako erantzun bat lortuko dugu.

**LPG teknika, zer da eta zer-nolako onurak ekartzen dizkigu?**

Endermologie® ez da zelulitisaren aurkako tratamendu hutsa, ezta emakumeendako tratamendu bat ere. Hainbat erabilera ditu, hainbat programa dituelako, eta ondorengoa lortzen du:

- Gorputza moldatu eta bolumena murriztu.
- Gantza galtzen laguntzen du eta zelulitisari aurre egiten.
- Likido-erretentzioa gutxitzen du.
- Azala onera ekartzen du, distira eta hidratazio naturala berreskuratuaz.

**Noiz da komenigarria pertsona batek tratamendu hori egitea?**

*“Osasun maila hobea eta gure buruarekin gusturago sentitzea lortzen dugu”*



**M. Carmen Pardo Abad
Lirain Zentruko arduraduna**

Edozein momentu da egokia, gantz gehiegi, likido-erretentzioa, zirkulazio arazoak edo zelulitisa baldin badaude. Gogoan izan zelulitisa garaiz tratatzen ez bada, hasiera fasean, arazoa konpontzea latzagoa dela.

*“Besteak beste, zelulitis sakona zuzentzen du teknika berri honek”*

**Pisua galtzen laguntzen dute tratamendu horiek?**

Lagundu bai, baina benetan argaltzea nahi bada elikadura egokiarekin eta ariketa apur batekin lortzen da. Horregatik, dietistaren zerbitzua ere eskaintzen dugu, tratamenduaren osagarri gisa.

**Azkar nabaritzen dira emaitzak?**

Benetako adibide bat jarriko dizuet: 37 urteko emakume bat da, dieta egiten zuen bakoitzean kiloak kentzea lortzen zuen, baina gerritik kentzen zituen guztiak, ipurdia eta bernak tamaina berekoak gelditzen zitzaizkion. Prakak erosten zituen bakoitzean gerritik sartu behar izaten zizkioten pilo bat, baina mokorretan ondo gelditzen zitzaizkion. LPGrekin, mokorra, ipurdia eta bernen tamaina murriztea lortu zuen.

**Horrekin guztiarekin, emaitza onak ziurtatuta daude?**

Emaitza onak lortzeko ezinbestekoa da erabateko bermea ematen duten aparatuak izatea. Dena den, ezin gara honetan guztian zerbitzuak duen garrantziaz ahaztu. Lirainen prestakuntza handia duen profesional taldea dugu, eta, gainera, hainbat urte daramagu elkarrekin lanean. Bezeroak oso ondo ezagutzen ditugu. Horrek bezero bakoitzarentzat tratamendu pertsonalizatuak prestatzeko eta emaitzak ziurtatzeko aukera handiak ematen dizkigu.

**Zer gehiago esango zenioke jendeari?**

Jendea gure zentroa bisitatzera animatu nahi nuke. Doako kontsulta bat egiteko hitzordua eskatzeko esango nieke. Inolako konpromiso barik etor daitezela gai horretaz edo bestelakoez hitz egitera eta gure lan egiteko modua ezagutzera: laser bidezko depilazioa, aurpegi tratamenduak... Zuen zain gaude.

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA



Lirainek
GORPUTZ-TRATAMENDURAKO
*LPG teknika aurkezten dizu*
**Kirurgiarik gabeko liposukzioa**

**Tratamendu integrala eskeintzen dizugu:**
**DIETETIKA KONTSULTA PERTSONALIZATUA + LPG TEKNIKA**

Gorputz-azterketa doan, konpromisorik gabe.

Emaitza onak bermatzen ditugu.

Debagoieneko estetika-gunerik haundiena.Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1 20500 ARRASATE Tel: 943 79 52 17

# Martxoak 4–11

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Maristak Antzuolan*** delako erakusketa inauguratuko dute eguenean, hilak 10, Olaran etxean, 18:30ean. Jose Luis Santamaria dokumentalistak berbaldia egingo du.

### ARETXABALETA

► **Nagusilan, nagusiek giza boluntario moduan** lan egiteko programa, aurkeztuko dute Javier Aranguren eta Tomas Atxak eguenean, hilak 10, Basotxo egoitzan, 17:00etan.

► **Seme-alaba eta gurasoen arteko hartu-emanen** gaineko hitzaldia egingo dute hilaren 10ean, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi elkarteak antolatzen du.

### ARRASATE

► ***Emakumeon eskubideen alde, elkartu bideak*** leloarekin kale agerraldia deitu du Udal Emakume Sailak martitzenean, hilak 8, Seber Altube plazan, 19:00etan. ESK sindikatuak ere parte hartuko du. Egun horretan, kale-bilkura egingo du ESK sindikatuak Inem aurrean, 12:00etan.

► ***Nola hasi eskolan modu egokian*** delako hitzaldia izango da martitzenean, hilak 8, Arizmendi ikastolaren Umezaintza gunean, 18:00etan, Haur Hezkuntzako umeen gurasoei zuzenduta. Arizmendi ikastolaren Guraso Eskolaren barne dago hitzaldi hori.

► **Softwarea eta aplikazio informatikoak alokatzeko** zerbitzuaren gaineko hitzaldia egingo du Miramon Enpresa Digitalak martitzenean, hilak 8, Goi Eskola Politeknikoan, 18:00etan. Zerbitzu horien kontratazioa azalduko dute eta birus informatikoen gaineko esku-liburua aurkeztuko dute.

► ***La casa de la palabra*** irratsaioa egingo dute eguenean, hilak 10, Monterronen, 20:00etan, HUHEZIren Literatura Astearen barne. Roge Blasco, Ana Mª Briongos, Zigor Aldama, Ander Izagirre, Patxi Irartzun eta Natxo Martin izango dira.

### BERGARA

► **Bergarako Korrika Batzordeak** euskalduntzearen gaineko mahai-ingurua antolatu du biharko, zapatua. Pol-Pol tabernan batuko dira 11:00etan, mokadua egiteko, eta mahai-ingurua 12:00etan hasiko dute.

► **Emakumearen Astea** antolatu dute Beke eta Jameko emakumeek: martitzenean, hilak 8, txokolatada eta dantzaldia Artatsen, 17:30ean; eguaztenean, 9, eta eguenean, 10, Latindar Amerikako emakume batzuen hitzaldi bana Go Jam aretoan, 18:30ean, eta argazki erakusketa.

► **Sahararen egoeraz** berbaldia egingo du Jesus Garai Sahararen Lagunen Elkarteko kideak eguenean, hilak 10, kultura etxean, 19:30ean.

► **Herri Batzarra** egingo du Batasunak martxoaren 10ean, eguena, Elementalean, 19:00etan.

### ESKORIATZA

► ***Nola jokatu ikasleen arteko erasokortasunaren aurrean*** delako hitzaldia izango da astelehenean, hilak 7, Almenen, 18:00etan, Lehen Hezkuntzako umeen gurasoendako. Arizmendi Ikastolak antolatu du, Guraso Eskola programaren barne.

► **Mendi irteera** deitu du Luis Ezeiza ikastetxeko guraso elkarteak etzirako, domeka. Mazmela elizatea bisitatuko dute, besteak beste. Herriko plazan batuko dira 09:15ean.

► ***Kirol clinic-a*** delako hitzaldi-berriketaldia egingo du Jesus Candelas areto-futbol entrenatzaileak etzi, domeka, kiroldegian, 10:45ean.

### OÑATI

► **Euskara eta euskalkien inguruko bertso-trama** egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

► **Angolatik etorritako bi lagunek** herrialde hartako egoeraren gainean berba egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean, Parrokiako Misio Taldeak gonbidatuta. Herritar guztiei zabaltzen diete deia.

► ***Baloreen sustapena eta transmisioa familian*** delako hitzaldia egingo du Eraberri taldeak martitzenean, hilak 8, Elkar Hezi ikastetxeko areto nagusian (Arantzazu, 18), 19:00etan. Interesa duen edozein joan daiteke.

► **Heziketa afektibo-sexualaren** gaineko hitzaldia egingo dute martitzenean, hilak 8, Txantxiku ikastolako aretoan, 18:30ean.

► **Drogamenpekotasunaren prebentzioaz** hitzaldi-tailerrak egingo dituzte Agipad taldekoek hilaren 9an eta 10ean Elkar Hezi ikastetxeko Santa Marinako egoitzan, 18:30ean. 12-18 urte bitarteko gurasoendako da.

► **Aralarrek** Ezker Abertzale Zibil eta Zabalaren eraikuntzaren gaineko hitzaldia antolatu du hilaren 9rako, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan. Joxe Iriarte *Bikila*-k eta Mikel Irizarrek egingo dute berba.

► **Arantzazuko frantziskotarrek** erlijioen arteko elkarrizketaren gaineko hitzaldia eta hirugarren adinekoendako gogo-jarduerak antolatu dituzte. Interesa dutenek izena eman behar dute aldez aurretik 943 78 13 15 telefono zenbakira deituta.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Loren eta Ene! disko jartzaileek** musika emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 03:00etan.

### BERGARA

► **Shotta eta Urbano Sapiens** taldeek joko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera da 10 euro aldez aurreko salmentan, eta 12, berriz, txarteldegian.

► **Within Temptation** taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. 22 euro da sarrera.

## IKUSKIZUNAK

### ARRASATE

► ***Gure Himalaia*** Alberto Iñurrategik egindako azken filma emango dute gaur, egubakoitza, Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

► KONTZERTUA

### FERNANDO SAUNDERS GUREAN

Musikari ezagun eta maitatu baten bi emanaldirekin gozatzeko aukera izango dugu asteburuan: Fernando Saunders baxu-jotzailea etorriko da, bi herritan kontzertu bana eskaintzera. Besteak beste, Lou Reed, Sting, Tina Turner, Jeff Beck, Eric Clapton, Ruper Ordorika… eta izen handiko beste hamaika musikarirekin lan egindakoa da Fernando Saunders. Debagoieneko antolatzaileek ilusio handiz prestatu dituzte kontzertu horiek, ibarreko musikazaleek gozatuko dituzten esperoan. Saundersi laguntzen, J.T. Lewis bateria-jotzailea eta Pete Min gitarrista arituko dira.

**Non:** Elgetako Espaloia antzokian eta Oñatiko gaztelekuan.
**Noiz:** Elgetan, gaur, hilak 4, egubakoitza, 22:30; Oñatin, etzi, hilak 6, domeka, 20:00.



ELGETA "HOTELA"

INAUGURAZIOA

**Martxoaren 4an, 18.30ean**, ateak irekiko ditugu
Herritar guztiak zaudete gonbidatuta
Zatozte eta egun berezi hau gurekin ospatu

San Roke 26 • Elgeta • **Tel.:** 943 78 91 07



► **Sergio Arroio bideogileak** bere proiekzioak emango ditu gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

## ANTZERKIA

### ANTZUOLA

► **Peio Añorgak** ipuinak kontatuko ditu bihar, zapatua, liburutegian, 18:00etan.

### ARRASATE

► ***Cocidito madrileño*** antzezlana egingo du Glu Glu taldeak bihar, zapatua, 19:30 eta 22:30, eta etzi, domeka, 19:30, Amaia Udal Antzokian. Bakarrik zapatuko emanaldirako geratzen dira txartel batzuk.

### BERGARA

► ***Molestias clównicas*** antzezlana egingo du Oihulari Klown taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► ***Abuela*** delako antzezlana egingo du Virginia Imazek martitzenean, hilak 8, Ibarraundin, 18:00etan.

## OSPAKIZUNAK

### BERGARA

► **Santu Martirien feria** egingo dute bihar, zapatua, Osintxun, 10:00etan.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Iñaki Saratxaga** marrazkilari eta argazkilari bilbotarrak erakusketa du Arregi markoztatze dendan (Maalako Errabala 8), martxoaren 11 arte.

► **Tomas Rubioren** margo erakusketa dago Harresi aretoan, astegunetan, 18:00-20:00, eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

### BERGARA

► ***Elkartasunean, mendia bide*** delako argazki erakusketa zabaldu du Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak. Kultura etxean dago, astegunetan 18:00-21:00 ordutegian eta zapatuetan, berriz, 12:00-14:00. Martxoaren 20ra bitartean dago zabalik.

# Zinema

### ANTZUOLA

■ OLARAN ETXEA

***Océanos de fuego***
Egubakoitza: 22:00.

***Yolanda eta arrosa beltzaren sekretua***
Domeka: 16:30.

### ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

***Mar adentro***
Egubakoitza: 22:30.

***Spider-man***
Domeka: 17:00.

### ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

***Frío sol de invierno***
Astelehena: 20:30.

***Conversaciones con mamá***
Eguena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Ray***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Sólo un beso***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Conversaciones con mamá***
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### ELGETA

■ ESPALOIA

***Billy Elliot***
Domeka: 17:30.

***El caso Bourne***
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI

■ KULTURA ETXEA

***El vuelo del fénix***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Pinotxo 3000***
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

***La casa de los Babys***
Eguena: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Constantine***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

***Los chicos del coro***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Los padres de él***
17:00, 19:45, 22:30.

***Constantine***
20:00, 22:30.

***Reencarnación***
17:30, 20:00, 22:30.

***Hitch***
17:20, 20:00, 22:30.

***El escondite***
17:30, 20:00, 22:30.

***La casa de las dagas voladoras***
17:30.

***El hundimiento***
17:00, 19:45, 22:30.

***Million dollar baby***
17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

***Los padres de él***
17:30, 20:15, 22:45.

***Bob esponja***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Hotel Rwanda***
17:30, 20:15, 22:45.

***Entre copas***
17:15, 20:00, 22:30.

***Constantine***
17:30, 20:15, 22:45.

***El aviador***
19:15, 22:30.

***2046***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

***Los increíbles***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Wimbledon, el amor está en juego***
17:20, 19:50, 22:35.

***Mar adentro***
17:15, 20:00, 22:30.

***El secreto de Vera Drake***
17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***Descubriendo Nunca Jamás***
17:00, 19:45, 22:30.

***Entre copas***
17:30, 20:00, 22:30.

***Carta de una mujer desconocida***
17:30, 20:00, 22:30.

***Buena vida - Delivery***
17:00, 19:45, 22:30.

***Hotel Rwanda***
17:30, 20:00, 22:30.

***El secreto de Vera Drake***
17:00, 19:45, 22:30.

***Los chicos del coro***
17:30, 20:00, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

***Hitch***
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

***El grito***
16:00, 18:10, 20:15, 22:30, 00:45.

***Electra***
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

***El aviador***
16:00, 19:30, 23:00.

***El vuelo del fénix***
16:45, 19:30, 22:20, 01:00.

***El escondite***
16:00, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

***Obsesión***
20:10, 22:30, 01:00.

***Taxi: derrape total***
16:00, 18:05.

***Los increíbles***
17:00.

***White noise - Más allá***
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

***Closer***
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

***Hitch***
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

***Constantine***
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

***Spanglish (J.B.A.)***
19:40, 22:10, 00:40.

***Los padres de él***
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 00:55.

***Million dollar baby***
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

***Descubriendo Nunca Jamás***
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

***El vuelo del fénix***
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

***White noise - Más allá***
18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

***El escondite***
12:15, 16:00, 18:00, 20:05, 22:10, 00:15.

***Bob esponja***
12:15, 16:20, 18:10.

***El niño que quería ser un oso***
12:15, 16:35, 18:05.

***Lemony Snicket***
12:15, 16:10, 18:20.

***Polar express***
12:15, 16:45.

***Kinsey***
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

***Hotel Rwanda***
20:00, 22:20, 00:40.

***Los increíbles***
12:15, 16:00.

***El aviador***
20:40, 00:00.

***Electra***
12:15, 16:40, 18:40.

***Closer***
20:30, 22:40, 00:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

***Constantine***
12:20, 17:10, 20:00, 22:30, 01:00.

***Spanglish***
22:15, 01:00.

***El vuelo del fénix***
12:20, 17:15, 20:00.

***White noise - Más allá***
20:15, 22:20, 00:30.

***Descubriendo Nunca Jamás***
12:20, 16:10, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

***Reencarnación***
12:20, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

***Million dollar baby***
12:00, 16:25, 19:30, 22:10, 01:00.

***Los padres de él***
12:20, 17:05, 19:45, 22:05, 00:45.

***Hitch***
12:20, 17:00, 19:45, 22:15, 01:00.

***Bob esponja***
12:00, 16:00, 18:00.

***El escondite***
12:20, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

***Hotel Rwanda***
12:00, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

***Los chicos del coro***
20:00, 22:00, 00:30.

***El aviador***
12:00, 17:00.

***Kinsey***
12:20, 17:05, 19:45, 22:15, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

***Descubriendo Nunca Jamás: ●●●● / El aviador: ●●●● / Ray: ●●● / Closer: ●●● / Mar adentro: ●●● / Alejandro Magno: ●● /***

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### ENTRE COPAS

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Alexander Payne.
**AKTOREAK:** Paul Giamatti, Thomas Haden Church, Virginia Madsen.

Alexander Payne zuzendariak ohikoak ez diren filmak egiten ditu. Ez zaio glamourra gustatzen, ez da irudi ikusgarriak lortzen arduratzen, bere istorioak ez dira toki politetan gertatzen, erabilitako erritmoa ez da azkarregia, *road-movie* egitura jarraitzen du, eta bere pertsonaiek nahiko arruntak eta grisak dirudite. Hau dena irakurrita ematen du ez dudala E*ntre Copas* filma gomendatuko, baina ez da horrela. Paynek badaki grisak diruditen pertsonaia horiei tonua ateratzen: epeltasunez eta maitasunez hurbiltzen da pertsonaiengana, eta euren dudak, frustrazioak, umore oneko eta umore txarreko momentuak, ahuleziak, bakardade sentipenak oso ondo adierazten ditu. Zuzendariak pertsonaia nagusi bat erabiltzen du —bere aurreko filmean, *A proposito de Schmidt*-en, Jack Nicholsonek erretiroko momentua iristen zaion pertsonaiaren rola egiten zuen; Paul Giamattik, *Entre copas*-en, bizitzan nahiko galdua dagoen berrogei bat urteko idazle baten pertsonaia egiten du—, eta hark hainbat pertsonairekin izango dituen harreman eta topaketak ikusteko aukera eskainiko digu, horren izaera nolakoa den zehatz-mehatz ezagutzeko. Horrela, nahiko pertsonaia arrunta edo txepela izan



zitekeen pertsonaia batetik sortzen du pertsonaia aberatsa, maitagarria eta gizatiarra.

*Entre Copas* sentimenduei buruzko komedia gazi-gozoa da, ondo islatzen du gure garaian ongizate gizarteak sortzen dituen pertsonaia bakartiak. Baina, aldi berean, deskribapen hori oso mingarria edo garratza izan ez dadin, komedia tonuari garrantzia ematen dio.

Benetan aipagarria da aktore guztien lana. Paul Gamatti, Oscar sarietarako izendatu ez badute ere, zoragarri dago filmean. Ez da itxura dotoreko gizona, lodi samarra eta ile gutxikoa, ez du aktore itxurarik, baina, adibidez, bere emazte ohiarekin duen eszenan erakusten dituen sentimendu nahastuak, Virginia Madsenekin dituen eszenetan sortzen den kimika, edo komedia momentuetan, bere aktore maila bikaina erakusten du, eta bere interpretazioarekin filma indartua ateratzen da.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN
Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat
BIKOTEKIDEA ZAIN DUZU
05/05/31ra arte baliagarria
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.servicaixa.com
ÁBACO
ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU !
www.cinesabaco.com

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a

SARE İNMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ANTZUOLA**
- Etxebizitza ederra salgai. Berriki eraikia. 84 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela bi, despentsa eta garaje itxia. Eguzkitsua. 80 m2-ko terrazarekin.
- 54 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. 171.288 euro /28.500.000 pta.

**BERGARA**
- 58 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Egoera onean, bizitzen sartzeko moduan. 114.793 euro / 19.100.000 pta.

**ARRASATE**
- Erguin auzoan: 55 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Denak kanpoaldera ematen du. 191.723 euro / 31.900.000 pta.
- Santa Teresan: 59 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 6 m2ko sotoa. 179.102 euro / 29.800.000 pta.
- Erdialdean: 70 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. Estreinatzeko.

**ALOKAIRUA**
- Oñati: 84 m2. Hiru logela. Altzariekin.
- Aretxabaleta: 95 m2. Hiru logela. Altzariekin.

Korosti
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**Santi Kutz 8 • LEGAZPI**
**Tel.: 943 73 05 25**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 85 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.
- Zubieta 70 m². Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
- Erdialdea 84 m². Garajea.

**ETXEBIZITZA ERRENTAN**
**Jaka:**
- Apartamendua errentan.

**BASERRIAK SALGAI**
- Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

**LOKALAK ETA GARAJEAK**
**Salgai eta errentan.**

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
BERGARA:
- Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
- Masterreka 75 m². Berrituta.
- Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.
- Elorregi 50 m². Berrizteko.
- Zubiaurre 45 m². Erdi berriztua.
- Zabalotegi 50 m². Begialde ona.
- Matxiategi 90 m². Begialde ona.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.

SORALUZE:
- Errekalde 82 m². Ondo dago.
- Rabal 42 m². Ondo dago.
- Ezozi 83 m². Ondo dago.

**BASERRIAK**
- Angiozar 600 m² eta lursaila.
- Elosua 246 m². Egoera onean.

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.



Garbi S.L.

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**943 33 18 37 (HERNANI)**
**649 84 67 09 (BERGARA)**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Bi logela, egongela, trastelekua. Gasa eta berogailua, kanalizatuak. Sartzeko prest. 169.000 euro. 627 21 87 49.

**Antzuola.** Hiru gela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. 157.000 euro. Deitu 18:00etatik 22:00etara, mesedez. 943 78 70 75.

**Aretxabaleta.** 180 m² dituen txaleta salgai. Bista ederrak ditu. Etxe agentziok, ez deitu. 609 48 99 58.

**Aretxabaleta.** 74 m². Ondo dago. Dena kanpoaldera. Erdialdean. Sukaldea eta komuna jantziak. Hiru logela. Berogailua. 646 06 86 29.

**Aretxabaleta.** Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoi bi. Eguzkitsua. 943 79 02 61.

**Arrasate.** Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Bizkaia etorbidean. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela eta bi ganbara ditu. 679 23 21 91.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai San Andresen. 97 m². Jantzia. Hiru logela, bi komun. Igogailua. 636 34 77 08 edo 667 53 89 66.

**Arrasate.** Sukaldea, egongela, bainugela eta hiru logela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. Telefonoa: 615 75 04 72.

**Bergara.** Etxebizitza salgai San Pedro kalean. Erabat berritua. 605 73 37 39.

**Bergara.** Ozaeta kalean etxebizitza sagai.Sukaldea, sala, bi logela, bainua eta jantzitegi handi bat. Aparkalekua, eta etxearen kanpoaldean berdegunea. Telefonoa: 605 73 71 90.

**Bergara.** Zubiaurre kalean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea jangela eta sala. 943 76 71 93.

**Elgeta.** Bigarren solairua da eta igogailua dauka. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

**Ezkarai.** Egurrezko etxea Ezkaraiko kanpinean. Partzela eta erdi du. Deitu gauez, mesedez. 699 01 44 30.

**Soraluze.** Etxe berritua salgai. Garajea, goi solairua, txokoa, komuna eta sukaldea jantzita. 144 m². 615 77 99 20.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean. Logela bakarra, jantzia. 605 71 37 77.

**Benidorm.** Etxe jantzia, hondartza ertzean. Parkingarekin. 630 41 84 65.

**Benidormen** apartamentua errentan ematen da. Igerilekua dauka. Hondartzatik gertu. 666 18 53 87.

**Conil.** Apartamentua alokagai daukat Bateles hondartzaren ondoan. Jantzita dago. 680 44 26 68.

**Costa Sancti Petri** Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Peñiscola.** Apartamentua. Hondartzatik gertu. Instalazio pribatuak. Guztiz jantzita. 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua alokagai Jaime I pasealekuan. Jantzia. Garajea. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

**Vera** (Almeria). Apartamentua ematen da errentan gune naturistan. Jantzita. Igerilekua. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Senar-emazteak eta alabak etxebizitza hartu nahi dute errentan. 676 07 68 25.

**Bergara.** Anaia brasildar batzuek etxebizitza errentan hartu nahi dute. 676 29 10 22.

**Debagoiena.** Familia alemaniar batek bi urterako etxebizitza errentan hartuko luke. 660 83 78 55.

Bergara Lanean diharduen neska asturiar arduratsu batek logela bat edo etxebizitza bat hartuko luke errentan. 616 32 80 48.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Lagun batekin edo birekin osatuko nuke etxea, Porta Solen. Arratsaldez deitu. 639 97 74 61.

**Aretxabaleta** edo Arrasate aldean etxea osatzeko gertu nago. 665 72 56 26.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Iturriotz parean. Deitu: Jurdana. 659 75 49 39.

**Bergara.** Logela bat errentan ematen dut, 80 metro koadroko etxebizitza baten. 153 euro hilean. Telefonoa: 685 77 23 72.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Makatxena auzoan garaje itxia salgai. Telefonoa: 945 12 09 94.

**Arrasate.** Santa Teresa auzoan garajea salgai. Deitu 20:00etatik aurrera. Telefonoa: 600 05 19 00.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia Larrea aldean. Bi autorendako lekua. Gauez deitu, 21:00etatik 22:00etara. Telefonoa: 946 81 94 51.

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Obenerrekan. Bi autorendako lekua. Gauez deitu, 21:00etatik 22:00etara. 943 79 69 41.

**Oñati.** Garaje itxia ematen da errentan Bidebarrietan. 619 81 70 72.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Ume bat zaintzeko emakume bat behar da. 699 04 48 47.

**Bergara.** Arratsaldeetan umeak zaintzeko neska behar da. 639 03 43 58.

**Bergara.** Emakumea behar da goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 647 37 20 48.

**DEBAGOIENA**
**ESPERIENTZIADUN ZERBITZARIA BEHAR DA EGUBAKOITZ ETA ZAPATUETAN LAN EGITEKO. 943 76 15 59**

**ARRASATE**
**BEHAR DUGU: 28 ETA 40 URTE ARTEKO KOMUNIKATZAILE ONA, DINAMIKOA, PRESENTZIA ONA ETA LANERAKO GOGOA DITUENA. ORDUTEGI MALGUA. 635 73 31 26**

**BERGARA**
**OKINDEGIAN BEHAR DA: DOMEKA ETA JAIEGUNETAN LAN EGITEKO PERTSONA. ORDUTEGIA: 07:45-13:15. GIDA BAIMENA EDUKITZEA ETA USKARA JAKITEA, BEHARREZKOAK. 943 76 02 57**

### 402. ESKAERAK

**3.500 kiloko kamioia** gidatzeko prest. Euskal Herri osoan. 666 40 65 19 edo 943 79 74 56.

**Arrasate.** Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak gauez edo egunez zaintzeko prest. Telefonoa: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeetan garbiketa lanak egiteko, orduka. 639 50 77 47.

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. Etxeko edo atarietako garbiketak, pertsona nagusiak eta haurrak zaindu... Ana. 649 59 86 04.

**Arrasate.** Esperientziadun neska gertu etxeak garbitu edo umeak zaintzeko. Hobe arratsaldeetan bada. 696 11 01 94.

**Arrasate.** Mutila astebuetan taberna batean lan egiteko gertu. 617 29 35 37.

**Bergara.** Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. 943 85 31 21 edo 629 80 77 73.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak edo adineko pertsonak zaintzeko zein garbiketa lanetarako. 661 17 51 80.

**Bergara.** Esperientziadun neska batek haurrak zainduko lituzke. 943 76 02 19.

**Bergara.** Irakasle ikasketak egiten ari den neska eskolak emateko prest. Arratsaldeetan umeak zainduko lituzke. 943 76 01 94.

**Bideoak** editatzen dituen profesionala behar baduzu, deitu. Edozein motatakoak: oporretakoak, ospakizunetakoak... 617 24 26 60.

**Debagoiena.** Administrari batek egun erdiz lan egingo luke. Ofimatika erabiltzen daki. Ingelesa eta alemana daki. 660 83 78 55.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: garbiketak, umeak eta edadetuak zaintzea, sukaldean laguntzea... 943 79 58 27 edo 618 00 08 30.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu dago. 676 29 10 22.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Etxezain, mantentze-lanetan edo lorezain. 685 77 23 72.

**Debagoiena.** Neska prest nagusiak zaindu edo etxea garbitzeko. Telefonoa: 629 80 77 73.

**Debagoiena.** Sukaldaritza ikaslea naiz. Lan egin nahi nuke eguen, egubakoitz eta zapatu gauetan eta domeketan. 606 36 29 27.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskola partikularrak ematen dira. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Lehen Hezkun-

tzako behar bereziak dituzten umeei laguntza

eskolak emango nizkieke. 645 73 04 69.

**Bergara.** Ingelesezko eskolak ematen ditut. Telefonoa: 605 76 32 72.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Osagarri asko. 90.000 kilometro. Zortzi urte. 679 44 60 75.

**BMW** 318 I autoa; ordezko piezekin. 616 04 13 42.

**Citroen Picasso 1.800** salgai. 3 urte. 30.000 km. 665 75 42 40.

**Citroen** Saxo VTS 1.6 autoa salgai. 1998koa. 617 29 35 37.

**Debagoiena.** Yamaha XT 350 cc. Trail motorra, IAT pasatu berri du eta egoera onean dago. 686 97 62 75.

**Ford Mondeo** familiarra salgai. Turbo diesela. 7.500 euro. 618 02 02 58.

**GAC** Onix Coma motorra salgai. 49 cm³. 100 euro. 943 78 24 90 edo 655 74 48 85.

**Gas-Gas** enduro motorra salgai. 250 cm³. 2002. urtekoa. Matrikulatua. Egoera onean. Jon. Telefonoa: 943 79 23 34.

**Karabana** salgai daukat. Moncayo. Bost lagunendako aproposa. Ondo zaindua. Abantze berria. Oñatin berau aparkatzeko lekua daukat. 2.100 euro. 943 77 15 48.

**Kawasaki** Vulcan 800 Classic motoa salgai. Lau urte. (Mikel). 656 72 45 60.

**KTM** motorra salgai. 2003koa. Matrikulatua. 6.000 euro. 607 92 22 58.

**Opel** Kadett 1.6 GT autoa salgai. Ondo dago. Telefonoa: 645 70 92 98.

**Opel** Kadett 1.6 S autoa. 100.000 km. Egoera onean. 607 91 15 37.

**Opel** Vectra 2.0 GTI autoa salgai. 125.000 km. Oso ondo dago. 1.100 euro. Telefonoa: 649 30 91 38.

**Opel** Vectra TDi autoa, 1997. urtekoa. 4.500 euro. Ondo

dago. Deitu arratsaldez, mesedez,. 943 79 45 64.

**Peugeot 206** autoa salgai. Bi urte, egoera onean dago. 650 23 34 98.

**Peugeot** 306 1.4 autoa salgai. Hiru ate, beira-igogailu elektrikoa eta eguzki-sabaia. Egoera onean. Prezio interesgarria. 653 70 86 77.

**Peugeot** 306 automobila salgai, XSdt modeloa. BI-CJ matrikula. Haritz. 609 36 87 61.

**Renault Space** autoa salgai. 10.100 km. Zazpi jarleku, aire girotua eta kristal beltzak ditu. 943 76 56 69 edo 656 71 16 64.

**Renault** Kangoo 4x4 salgai. Gasolinakoa. Bi urte. (Mikel). 656 72 45 60.

**Volkswagen** Passat. 130 zaldi, TDI, High Line metalizatua. Sei CDrendako irratia eta esku libreko kit-a. 10.500 km. 629 43 38 81.

**Yamaha TZR** 49 cm³-ko motorra salgai. Egoera ona. 1.300 euro. 617 44 85 28.

### 602. EROSI

**Furgoneta** erosi nahi genuke. Marokora bidaia bat egiteko bost lagunentzako furgoneta behar dugu. 800 eurotik beherako bat erosteko prest gaude. 943 78 61 92.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Arratoi-txakurra** salgai. Bi hilabete eta erdiko txakurkume arra da. 943 76 09 80.

### 703. EMAN

**Arratoi-txakurkume bi** ematen ditut opari. Bi hilabete eta erdikoak, oso politak. 943 76 97 64.

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra** galdu dut Bergarako Bolu kalean. Nahiko handia da; zuri-beltza; buztan luzea. 35 kilo inguru ditu. Tron izena dauka. Galdu zenean lepoko zuria eta soka urdina zeramatzan. 610 64 58 41 edo 943 76 13 90.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Belarra mozteko** traktore hidrostatikoa. 18 ZP, zilindro formako Bringgs-Straton motorra eta 102 zentimetroko mozketa. Egoera bikainean dago eta Husqvarna CTH-160 modelokoa da. 1.800 euro. 616 96 57 98.

**Bizikleta.** Decathlon B'twin markakoa. Hiru aldagailu eta zazpi pinoi. Mendirako zein errepiderako. Gela duen aulkiarekin eta foku orientagarriarekin. Estreinatu barik. 150 euro. Nerearengatik galdetu. 943 79 68 18.

**Egur koloreko** sukaldeko mahaiak eta aulkiak salgai. Egoera onean. 200 euro. 650 61 46 74.

**Estetikako materiala** saltzen dut: esku-ohea, argizari urtzailea, lupa... Ondo dago, prezio ona. 669 11 03 52.

**Fotokopiagailua** salduko nuke. Minolta EP 2010 modeloa. 637 82 05 54.

**Frijigailu eta lapiko** industrialak salgai. 300 pertsonarendako. 666 40 65 19 edo 943 79 74 56.

**Fumigatzeko** haize-makina. SOLO 470 modeloa. Motor bidezkoa eta bizkar-zorroan eramatekoa. 200 euro. 616 96 57 98.

**Gitarra** elektriko berria salgai. Ibañez markakoa. 240 euro. 617 44 85 28.

**Karabana** salgai. TEC markakoa. Lau lagunendako, prezio interesgarria. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 76 12 29.

**Logela** bateko altzariak salgai, 90 cm-ko bi oherekin eta armairuarekin. Horretaz gain, egongela bateko armairua eta sofa ere salgai. Prezio onean. 943 76 53 16.

**Musika-katea.** Bi bozgoragailu eta altzaria barne. Ondo dago. Manchester eta Milan futbol taldeen kamiseta bana ere saltzen ditut. Estreinatzeke. (Rufino). 943 78 04 96.

**Musika-katea** salgai. CD bikoitza, irratia, disko-jogailua. Musika katearen altzaria eta CD-arena. 210 euro. 650 61 46 74.

**Sasi-garbitzeko makinak.** STHIL FS-220 modeloko eta SOLO 140 modelokoak. 200 euro bakoitza. 616 96 57 98.

**Sasiak garbitzeko** eta belarra mozteko bi makina. Hiru gurpil eta alboko irteera. Sei ZPko Honda UM-21 modelokoak. 600 euro bakoitza. 616 96 57 98.

**Teka** markadun ontzi-garbigailu integrala salgai. Zabalera 60 cm x altuera 82,5 cm. 675 70 16 07.

**Tronboi** irristailuduna salgai. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 78 30 21.

**Ur-berogailua** salgai. Vaillant Geiser. 11 litro. Ia berria. 943 78 32 72.

**Zankadera** bat eta lau mahai salgai. 943 78 09 05.

### 802. EROSI

**Anplifikadorea** erosiko nuke. 100-150 watt bitartekoa. Deitu 21:00etatik 23:00etara. 665 75 12 32.

### 803. EMAN

**Bi sofa** opari ematen ditut, bi eta hiru lekukoak. Bila etorri beharra dago Oñatira. Deitu denda ordutegian, mesedez. 943 78 25 83.

### 805. TRUKATU

**"Cocidito** Madrileño" antzezlana Arrasaten ikusteko sarrera bat dut martxoaren 5erako, eta martxoaren 6an egingo duten emanaldirako aldatu nahi dut. 615 70 22 68.

### 806. GALDU

**Antzuola.** Otsailaren 25ean belarritakoa galdu nuen Kalebarren eta Zurrategi artean. Anbar kolorekoa. Eskertuko da. 943 76 61 47.

**Bideokamera** galdu nuen Aretxabaletako autobus geltokian, otsailaren 26an. 696 58 28 73.

**Eskularrua** galdu nuen Aretxabaletako Portasolgo parke inguruan. Eski-mendikoa da. Millet markakoa. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. Eskerrik asko. 629 56 71 76.

**Graduatutako** betaurrekoak galdu ditut Bergaran, Matxiategi kaletik azokara bitartean. Armazoi gorria. 629 42 20 05.

**Kapela** beltza galdu nuen Aretxabaletan otsailaren 13an. Erdialdetik Portasolera bidean. 629 10 41 31.

**Katua** galdu dugu Arrasaten, Musakolan. Paparra zuria dauka, eta gorputza tigre itxurakoa. Hamar hilabete ditu. Topatzen duenak saria izango du. 687 73 33 91.

**Poltsikoko** telefonoa galdu nuen Arrasaten edo Aretxabaletan. Deitu telefono honetara: 659 44 87 08.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Otsailaren 25ean kalean topatu nuen hortzordea Estella farmazian dago.

**Giltzak** utzi zituen norbaitek Arrasateko Igualatorioan, orain dela bi aste edo. Hiru giltzatako ditu, horietako bat Bartzelona futbol taldekoa. 943 71 26 91.

**Ume baten oinetakoa** aurkitu nuen Aretxabaletan. Arrosa da. 18 zenbakiduna. Udaltzainei eman nien .

## 9/ HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Gitarra jotzaile** eta abeslari bila gabiltza. Metal talde arrasatearra gara. Elkarrekin urtebete daramagu jotzen. Ibai, Ander. 687 04 83 79 edo 647 52 64 34.

## AIPAGARRI

### Nartxi Azkargorta
BERGARA



Taun-Taun antzerki taldeko kide izandako Nartxi Azkargorta bergararra TVEko *Los Lunnis* saioan ari da lanean. *Lutecio* pertsonaia egiten du Nartxik: haren ahotsa da. Aurretik *Barrio Sesamo* saioan jardundakoa da eta orain *Ale hop!* lanarekin dabil.

### Edurne Elkoro
ARRASATE



Emakume langilearen nazioarteko eguna iragartzeko kartel lehiaketa irabazi du Edurne Elkoro diseinatzaile grafikoak. *Martxoak zortzi Arrasaten eta munduan* dio kartelak. Bigarren aldiz jarraian irabazi du Edurne Elkorok lehiaketa hori.

### Maria Jose Gil
ARRASATE



Urrezko bi domina lortu zituen arrasatear horrek Beteranoendako Atletismoko Espainiako Txapelketan. 65 urte egingo ditu Maria Josek, eta 1.500 eta 3.000 metroetan irabazi zituen dominak. Txapelketa Oviedon izan zuten joan den asteburuan.

## HILDAKOAK

**Genaro Altzerreka Areitio.** Bergaran, otsailaren 23an. 95 urte.
**Luis Aranguren Maiz.** Arrasaten, otsailaren 23an. 94 urte.
**Ana Mari Oleaga Bikuña.** Oñatin, otsailaren 24an. 80 urte.
**Juana Berriotxoa Muñoa.** Arrasaten, otsailaren 24an. 83 urte.
**Manuel Mira Barreiros.** Bergaran, otsailaren 25an. 59 urte.
**Petra Abad Escribano.** Aretxabaletan, otsailaren 26an. 89 urte.
**Jose Berdejo Ruiz.** Eskoriatzan, otsailaren 27an. 52 urte.
**Benedictina Lizarralde Lizaur.** Oñatin, otsailaren 28an. 83 urte.
**M. Karmen Arozena Ojanguren.** Bergaran, martxoaren 2an. 71 urte.

### ESKER ONA

Juana
Berrio-Otxoa Muñoa

Arrasaten hil zen 2005eko otsailaren 24an, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2005eko martxoaren 4an.

### URTEURRENA

Maritxu
Biteri Otxoa-Aizpurua



Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 6an,
11:00etan,
Maringo Santa Maria Magdalena
Parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

Manuel
Lopez Suarez

Bergaran hil zen 2005eko otsailaren 21ean, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko martxoaren 4an.

### ESKER ONA

Genaro
Altzerreka Areitio
Jacinta Bastarrarenaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko otsailaren 23an, 95 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko martxoaren 4an.

### ESKER ONA

Patxi
Unamuno Arbulu

Arrasaten hil zen 2005eko otsailaren 18an, 79 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Angiozarren, 2005eko martxoaren 4an.

Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik jarri
nahi baduzu,
etor zaitez
GOIENKARIAren
ordezkaritzetako
batera.

Goienkaria
Astero 18.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 82 €.



CLINICA DENTAL
BERGARA

• Odontologia orokorra
• **Inplanteak**
• **Protesiak**
• Hortz-estetika
• **Periodontzia**

**FINANTZAKETA:**
3 HILABETE ETA 5 URTE ARTEKOA

**ASEGURUAK**
Ipresa, La Previsora, Sanitas, Aegón, DKV/Previasa, Asepeyo, Asisa, Fraternidad, Azkaran, Fremap, Previsora Bilbaina, Adeslas, Pakea, Allianz, Grupo Eroski

RPS 99/94

**Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77**

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a

## IRAGARPENA

**ZAPATUA, 5** / Max.: 6º / Min.: 2º/



**Zerua oso hodeitsu edo estalia egongo da, prezipitazio ertainak izango dira, eta iraunkorrak izan litezke. Elur-kota 900 metroan kokatuko da, eta egunaren lehen eta azken orduetan 600 metrora jaitsi. Ipar-mendebaldeko haize bizi-gogorra ibiliko da. Tenperatura gutxi igoko da.**

**DOMEKA, 6** / Max.: 4º / Min.: -1º/



**Zerua oso hodeitsu egongo da eta zaparrada ertainak izango dira; egunaren bukaeran atertu egingo du. Goizaldean elur-kota 400-500 metroan kokatuko da, eta arratsalde-gau partean itsas mailaraino jaitsi. Iparraldeko haize bizi ibiliko da, tarte gogorrekin mendi inguruetan.**

## EURIA

# Euriaren sorrera eta ezaugarriak

Euria hodeietatik tantaka erortzen den ura da. Gurean, zoritxarrez edo zorionez, ohikoa dugu fenomeno hori. Urik gabe, eta ondorioz euririk gabe, lurrean ez litzateke bizirik egongo.

Eguzkiak itsasoko eta ibaietako ura berotu eta ur asko lurrintzen du. Eguratseko aire masa beroak gorantz igotzen eta hozten direnean, hodeietako lurrin tanta txikiak kondentsatu eta ur tanta bilakatzen dira; hala, aireak ur tantak ezin dituenean eraman, haiek handiegiak eta astunegiak egin direlako, lurrera erortzen dira grabitate indarraren eraginez, eta euria sortzen da era horretan.

Tantek 0,5 eta 7 milimetro arteko diametroa izaten dute eta 3 metro/segundoko abiaduran erortzen dira.

Ura, eta beraz euria, nahitaezkoa da lurrean bizia egoteko. Gure planetan dagoen uraren parte handiena ez da geza; gazia baizik. Eta gizakiok ur gezaren %0,003 bakarrik erabil dezakegu. Ur horren parterik handiena Poloetan dago. Ur gezazko beste iturria, berriz, atmosferako ur lurrinean dago.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria — un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA — DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

**www.euskalmet.net**

## HITZGEZIDUNAK

Luma



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Berritsu / *Deitura | | Berriz ere / Errep., gorotza | | Intsektu mota |
| | | | | | | | |
| | | | Onomatopeia / Herri hizk., eta | | | | |
| Haurdun / Ibai baten beheragunea | | T birritan / *Izena | | | Nori atzizkia / Txori mota (pl) | | |
| | | | | | | | |
| Emakumeei deitzeko / Altxatu | | | Zein pertsona / Onuragarri | | | | Arreta, oharpen |
| | | | | Parke zoologiko / Iridioa | | | |
| Elementu kimiko / Irudi grafikoa | | | | | | Hidrogenoa / Ontzietako haga | |
| | | | | | | | |
| Ugaztun basati | Sodioaren sinboloa / Izu | | | Gar / Erbioa | | | |
| | | | | | Samarioa / Osmioa | | |
| Esku-zerra / Lore | | | | | | | |
| | | | | Santuren apokopea | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



**TONI BLAIR**

Irlandako bake prozesuari buruzko bere ikuspegia azaltzera hurbildu da sekretupean eta ezkutuan Tony Blair Euskal Herrira.

Hegazkina Sondikan lurreratu da, arratsalde goibel eta euritsu batean. Hegazkinetik isilka-misilka jaitsi eta sarrera nagusira heldu da. Han, emakume heldu bat ikusi du, taxi batera hurbildu eta gidariari honako hau esaten:

– Begoña!

Orduan, bera, hurrengo taxistarengana hurbildu, makurtu eta erdizka zabaldutako leihatilatik, honako hau esan dio, inguruko guztiek entzuteko moduan:

- Tony!

**TELEFONOZ**

Astelehen goiza da eta asteko lanei ekin baino lehen, Joseba Egibarrek Xabier Arzalluzi hots egin dio:

- Kaixo, Xabier. Ezer berririk ba al da?

- Lasai, alderdia sekula baino indartsuago eta batuago dago. Gureak ez diren medioetako inkestek ere gero eta emaitza hobeak eskaintzen dizkigute eta, batzuei gehiegikeria irudituko baldin bazaie ere, esan genezake gu garela berriro ere euskal politikagintzaren gunea eta erreferentzia zentrala.

- Tira, Xabier, ezagun da kazetariekin zaudela. Geroxeago deituko dizut.

## SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ● | H | ● | B | ● |
| | | | M | I | K | E | O |
| | | | ● | Z | A | R | T |
| ● | E | ● | T | T | ● | R | I |
| U | R | J | A | U | Z | I | A |
| ● | N | O | ● | N | O | R | ● |
| J | A | S | O | ● | Z | O | O |
| ● | R | E | N | I | O | ● | H |
| D | I | A | G | R | A | M | A |
| ● | ● | N | A | ● | K | A | R |
| T | I | G | R | E | ● | S | M |
| ● | Z | E | R | R | O | T | E |
| L | I | L | I | ● | S | A | N |



Martxoaren 7a: 034 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Sariak astero!

Astelehenean, martxoak 7, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

## Martxoaren 7ko sariak




- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

Juan Martin Elexpururen
**BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**

Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta.

Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.




## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Kuota:**

**Harpidetza kuota, 35 euro**

**2005 osoko** harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

033 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Korrika Kulturalaren barruan martxoaren 4an, Oñatiko Santa Ana antzokian izango den BERTSO-TRAMArako (Elortza, Lujanbio, Egaña eta Arzallus) hiru gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).**
- Vicente Madina Zabaleta (Oñati)
- Gaizka Etxaniz Aranguren (Antzuola)
- Jose Mari Arenaza Garitano (Bergara)

**Eibar-Elch futbol partidurako lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).**
- Beñat Negueruela Elorza (Oñati)
- Pedro Mari Eskibel Larrañaga (Eskoriatza)
- Andoni Narbaiza Ibarzabal (Bergara)
- Aintzane Agirre Urzelai (Oñati)

**Martxoaren 4an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den FERNANDO SAUNDERS-en (Lou Reed taldeko baxu jotzailea) kontzertua ikusteko bi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).**
- Maria Asun Urzelai (Oñati)
- Jose Mari Urzelai Albizu (Bergara)

**Juan Martin Elexpururen BERGARA ALDEKO HIZTEGIA. Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.**
- Elena Kareaga Garcia (Bergara)
- Edurne Agiriano Altuna (Oñati)



## 'Derbia'

DOMEKA 6 / **21:00**

### Aloña Mendi eta Mondra aurrez aurre Azkoagainen

Mondra da Debagoieneko taldeetatik sailkapenean ondoen dagoena. Jardunaldi honetan, ordea, ez dute zelai samurrean jokatuko arrasatearrek. Aloñak emaitza onak atera ditu azken jardunaldietan, kanpoan eta etxean.



## 'Debarri'

MARTITZENA 8 / **21:30 eta 23:00**

### Leintz Gatzagan izango da Gorritiberearen 'Debarri' saioa

Bigarren astez jarraian datorkigu *Debarri* saioa. Oraingo martitzenean, Leintz Gatzagako kontuen gainean berba egingo du Alberto Gorritiberearek. Betiko moduan, telefonoz edo e-posta bitartez galderak egiteko aukera izango duzue.



## 'Danbaka bira'

EGUAZTENA 9 / **21:30 eta 23:00**

### Dolce Vita taldea Elgetako Espaloia kafe antzokian

Heavy klasikoaren doinuak jotzen ditu Dolce Vita talde arrasatearrak. Ez zuen Danbaka lehiaketan sartzerik izan, baina, *Danbaka bira* dela-eta, taldekideek aukera izan dute Elgetako Espaloia kafe antzokian kontzertua emateko.




## 'Behazulo'

EGUENA 10 / **21:30 eta 23:00**

### Badator Korrika 14 'Behazulo' saiora

Martxoaren 10ean abiatuko da Korrikaren 14. edizioa, Orreagatik. Hamar egunean Bilborako bidea egingo du. Debagoienetik ere igaroko da, eta Goiatz Aranak zuzentzen duen *Behazulo* saioan geldiunea egingo du.

## TELEBERRIAK

### 'Martin' telesailaren kapitulu berriak

ETB1eko umorezko telesailaren kapitulu berriak uda partean grabatuko dituzte. Guztira, 13. Asmoa da urrian hastea telesaila berriro emititzen. Besteak beste, pertsonaia eta dekoratu berriak estreinatuko dituzte *Martin*-en hirugarren denboraldian.

### Produkzio-etxe bateko lau lagun atxilotu dituzte

Zenbait herri telebistatan emititzen zuten lehiaketa baten bitartez, bost milioi euroko iruzurra egin dutelako atxilotu dituzte lau zuzendariak. Denbora luzea irauten zuten telefono deien bitartez egin zuten iruzurra. Egunean 60.000 euro irabazten zutela erakutsi du Guardia Zibilaren ikerketak.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Martxoaren 4tik 10era

goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 4 | ZAPATUA 5 | DOMEKA 6 | ASTELEHENA 7 | MARTITZENA 8 | EGUAZTENA 9 | EGUENA 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:50 **Marrazki bizidunak:** Fernando Amezketarra Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Behazulo**<br>15:00 **Auñamendietan**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Ilunpean:** Laxaro Azkune<br>21:30 **Gure lanbide zaharrak**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Ilunpean**<br>23:00 **Gure lanbide zaharrak**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 11:05 **Behazulo**<br>11:35 **Debarri:** Eskoriatza<br>12:35 **Marrazki bizidunak:** Fernando Amezketarra<br>13:40 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki<br>14:00 **Auñamendietan**<br>14:30 **Filma:** Tom Sawyer-en abenturak<br>15:25 **Ilunpean:** Laxaro Azkune<br>16:00 **Debarri**<br>17:00 **Bi eta bat**<br>17:30 **Klip@**<br>17:45 **Behazulo**<br>18:15 **Danbaka bira:** Dolce Vita<br>19:15 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla<br>20:00 **Emisio amaiera** | 11:00 **Filma:** Tom Sawyer-en abenturak<br>12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla<br>13:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki<br>13:25 **Ilunpean**<br>13:55 **Auñamendietan:** Laino zakarra Auñamendian<br>14:30 **Gure lanbide zaharrak**<br>15:00 **Filma**<br>15:50 **Danbaka bira:** Dolce Vita<br>16:20 **Debarri**<br>17:20 **Bi eta bat**<br>17:50 **Marrazki bizidunak**<br>18:45 **Ilunpean**<br>19:15 **Klip@**<br>19:30 **Debarri**<br>20:30 **Auñamendietan**<br>21:00 **Derbia**<br>22:30 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** Fernando Amezketarra Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Ilunpean**<br>15:00 **Gure lanbide zaharrak**<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Harmailatik**<br>21:30 **Derbiaren laburpena**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Derbiaren laburpena**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Harmailatik**<br>15:00 **Derbiaren laburpena**<br>15:30 **Berriak**<br>15:45 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla<br>21:00 **Debarri:** Leintz Gatzaga<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Debarri:** Leintz Gatzaga<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** - Fernando Amezketarra Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Debarri:** Leintz Gatzaga<br>15:30 **Berriak Aurrerapena**<br>15:45 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Bi eta bat**<br>21:30 **Danbaka bira:** Dolce Vita<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Bi eta bat**<br>23:00 **Danbaka bira:** Dolce Vita<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla<br>14:15 **Berriak Aurrerapena**<br>14:30 **Bi eta bat**<br>15:00 **Danbaka bira**<br>15:30 **Berriak**<br>15:45 **Klip@**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla<br>21:00 **Behazulo**<br>21:30 **Auñamendietan:** Mendi bizikleta sobrepuertoan<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Behazulo**<br>23:00 **Auñamendietan**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 21:00 **Ilunpean** | 14:30 **Filma** | 21:00 **Derbia** | 21:00 **Harmailatik** | 21:00 **Debarri** | 21:30 **Danbaka bira** | 21:30 **Auñamendietan** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

LASAGABASTER

LASAGABASTER

w w w . l a s a g a b a s t e r . c o m

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55


Erabakiaren osteko poztasuna
Bizitza honetan erabaki batzuk ez dira erraz hartzen, bereziki gure seme-alaben etorkizunaz ari garenean. Guregan jarri duzu konfiantza. Horregatik, mila esker.
www.arizmendi.ikastola.net
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko martxoaren 4a

*Atzeskua*

OIHANA ELORTZA

# Migel Larrañaga/ Gozogilea

**Zorionak, sariagatik.** Eskerrik asko. Baina nik jaso egin dut bakarrik. Nik neuk 50 urte egin ditut gozogintzan, baina nire aurrekoek egindako lana ere saritu du Gipuzkoako Merkataritza Ganberak.

**Nortzuk hasi ziren Larrañaga gozogintzan lanean?**

Gure aitajauna hasi zen lehendabizi, aita ondoren, orain arte ni eta hemendik aurrera semea. Gure aurretik, toki hau Larrañaga izan aurretik, beste batzuk izan ziren hemen.

**Noiz hasi zen lanean aitajauna?**

Duela 100 urte. 1905. urtean hasi zen tostoiak, erreilenoak eta beste hainbat gozo egiten.

**Askotariko pastelak egin dituzue harrezkero?**

Hobetzea da beti gure nahia, beti gabiltza egiten duguna hobetu nahian. Errezetak eurak lehengo berak dira, baina hobetzen saiatu gara.

**Nola?**

Lehengaiak hobeak eta gehiago ditugu gaur egun: azukrea, irina eta arrautzak, esaterako. Gogoan dut, mutikoa nintzela, gerra ostean, zailtasun handiak izaten genituela azukrea lortzeko. Labeak ere, lehengoak baino askoz hobeak dira gaurkoak.

**Tostoiek ere 100 urte dituzte?**

Bai, gutxienez. Zehazki ez dakigu, baina 100 urte baino gehiago dituzte.

Emaztea eta biok kanpora goazenean gozoei begiratzen diet, baina oraindik ez dut beste inon tostoirik ikusi: gorringoarekin erreilenoak egiten ditugu guk eta zuringoarekin tostoiak.

**Baina nahiz eta errezeta bera jarraitu, alde handia egoten da esku batzuek edo besteek egin.**

Batzuek esku traketsagoak izaten dituzte beste batzuek baino, bai. Baina ez da gauza nekeza, ilusioa eta gogoa eduki behar dira. Batez ere, gustatu egin behar zaizu egiten duzuna.

**Nabaritzen duzue jendea noiz hasten den dieta egiten?**

Ez, horrenbeste ez. Gainera, ospakizunetan ez du dietarik egiten jendeak.

Hala ere, opilek gizendu egiten dutelako-edo, gutxiago erosten dituzte orain, baina pasteletan, tostoietan eta tartetan ez dugu nabari.

**Tentaziorik izaten duzu egin duzuna probatzeko?**

Egunero egiten dut hori. Gure lanbidean egunero ikasi behar da, eta ikasteko probatzen dugu: labearen tenperatura eta denbora, irinaren egoera... Dena izan behar dugu kontuan.

**Hemen esateko modukoa da sekretua?**

Sekretua da ona eta freskoa egitea. Ona izan arren, ez da hain gozoa egoten freskoa ez bada.

**Lankide batzuek Bushen antza hartu dizute.**

Bushena? Kar-kar-kar. Inork ez dit orain arte esan. Ile zuriagatik eta betaurrekorik gabe nagoelako izango da akaso.



**“Duela 100 urteko errezetak egiten ditugu, baina baliabide hobeak ditugu gaur”**

**“Ez dugu nabaritzen jendea noiz hasten den dieta egiten, baina opilak gutxiago erosten ditu, gizendu egiten dutelako-edo”**

**“Ona eta freskoa dira sekretua; ona izan arren, ez da hain gozoa freskoa ez bada”**

► *Bergara / 69 urte / Larrañaga gozotegikoa*

## PIPERRAUTSA

### *Sinatu*

Dagoeneko ofiziala da apirilaren 17ko deia, Legebiltzarreko hauteskundeetarako. Aldiz, ez dago garbi ea aukera guztiak aurkeztu ahal izango diren egun horretan. Eta inplikatutako aldeak eztabaida antzutan ari diren bitartean, hiritar talde batek heldu dio gaiari serio, eta aurkeztu du Aukera Guztiak izeneko ekimena.

Talde horrek bultzatu nahi du hautesle elkarte bat, horren bidez zerrendak aurkeztu ahal izateko hauteskundeetan. Ez dute proiektu politiko bat bultzatzen, bakarrik nahi dute bermatu Batasuna ohiak izango duela aurkezteko bigarren aukera bat, baldin eta eskubide zuzena ukatzen badiote.

Ez dakit justu nola egingo litzatekeen hori, lehenengo osatu zerrenda *garbiak* lege injustuaren galbahea pasatzeko, eta gero eserlekuak eskuz aldatu. Baina, formalidadeak alde batera, ahaleginak merezi du laguntasuna. Ikusita nekez gauzatuko direla soluzio hobeak, modu eragingarria da apirileko deialdiaren kalitatea hobetzeko.

Lagundu nahi duenak hauxe egin behar du: toki jakin batzuetara hurbildu eta bere sinadura eman Aukera Guztiak elkartearen alde. Debagoienean Arrasateko Udala eta notariotza dira izendatutako toki bakarrak. Eta ez dago denbora askorik, martxoaren 11 baita azken eguna.

Ni joango naiz sinatzera, zalantzarik gabe. Botoa nori eman, beste kontu bat da. Baina nahi dut eskura egon daitezen aukera guztiak.

MIKEL IRIZAR

iKER

**SUKALDEAK:**
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:**
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

